


# IRAKURGAI ERREZAK

TEXTOS CON VOCABULARIO REDUCIDO PARA PRINCIPIANTES

1.º



Nun zer:

ZENBAT URTE

ZORI ONEKO LAPURRA

ta beste zortzi antzerki labur

PREPARADO POR:

**EUSKERAZALEAK**


Asociación para  
el fomento  
del vascuence

Idazlanok euskera errezean eta iztegi laburrez idatzi dira, ta asmo onegaz argitaratzen doguz:

Gure izkuntza ikasten diarduenak, irakurgai polit eta egokien bidez, ikasi daben apurtxoa alkarrizketan erabilli dagien.

Ori dala-ta, antzerki-eran agertuko dira geienetan orrelako idaztitxoak. Orretara, ikasleak antzestuta, lagun-arteko euskera bizia erabilten oituko dira.

Tienen estas obritas, escritas en un lenguaje fácil y con un vocabulario reducido, la finalidad de proporcionar a los estudiantes de nuestro idioma temas de lectura asequibles a sus todavía escasos conocimientos, y la ocasión de practicar el diálogo usual. Se dan a estas lecturas, preferentemente, la forma de pequeñas obras teatrales para que en los colegios o centros puedan ser representadas por los alumnos y sirvan así para practicar mejor el idioma.



## ZENBAT URTE?

ANTON, ostatu-etxeko mai serbitzaillea.  
 IÑAKI, ogetamar urte inguruko gizona, ezkongei.  
 LIBE, neskatilla ederra, Iñaki baiño gazteago.

(Ostatu-etxeko gela eder batean. Iñaki, mai-ondoan jesarrita dago, aurrez-aurre leioa daukala. Ostatura eldu-barria da. Arratsaldea. Libe ibilli dabil gelan zear. Iñaki'k ez dau lenago iñoz Libe ikusi. Leiotik kanpora gizatalde aundia ikusten dau).

IÑAKI'K (Anton'i): **Ekarri beste zeozer edateko, mesedez... Zelan dozu izena?** (Libe'ri begira ta begira).

ANTON'EK **Bergaretxe'tar Anton, jauna.**

IÑAKI'K **Ekarri ba, Anton, lengoa barriro, mesedez.**

ANTON'EK **Bai pozik be, jauna.**

IÑAKI'K **Zer jazoten ete da or?** (Zutundu ta leiotik kanpora begira)...  
**Taxi bat ikusten dot.**

ANTON'EK **A, bai! Ez da ezer, jauna. Goizeon lagun bi ezkondu dira, ta orain ba doaz nora edo ara. (Libe'k, leiora urreratu ta kanpo-aldera begiratzen dau).**

LIBE'K **Orra, or datoz! (Anton'ek begiratzeari izten deutso).**

IÑAKI'K **Bai, ikusten dodaz.**

LIBE'K **Neskatillea ez da gazte-gaztea, ez dozu uste?**

IÑAKI'K **Ez, ez da... (Albora begira, Libe gana). Ee... edateko zeozer gura dozu?... Nire izena, Berrondo'tar Iñaki...**

LIBE'K **Ondo dago, Berrondo jauna. Guztiz ona zara. Eskerrik asko.**

IÑAKI'K **Anton, ekarri mesedez andereño...**

LIBE'K **Libe, Galardi'tar Libe.**

IÑAKI'K **Ekarri andereño Libe'ri zeozer edateko.**

ANTON'EK **Bai jauna.**

IÑAKI'K **Zer artu gura dozu, Libe andereño orrek?**

LIBE'K **Ba daki Anton'ek. Betiko antzera, Anton, mesedez.**

ANTON'EK **Bai, andereño. Atsegiñez.**

IÑAKI'K **Emen jesarriko gara? (Bere mai-aldera atzamarra luzatuaz. Antxe jesarten dira biak alkarren ondoan).**

LIBE'K **Eskerrik asko... Zenbat urtekoa ete zan neskatillea, zure eritxiz?**

IÑAKI'K **Ez dakit ziur. Miñutu baten baiño ez dot ikusi... Berrogei inguru, bear bada.**

LIBE'K **Oo... ez dot uste. Mutillaren sasoikoa zirudian, eta mutillak ez ebazan ogetamabost baiño geiago.**

IÑAKI'K **Ba... ori baiño zarragoa zan neskatillea, ziur nago... Gizonezko batek, bera baiño gazteago dan emakume bategaz ezkondu bear leuke, ezta? (Anton'ek edariak ekarri ta mai-ganean ipinten ditu). Eskerrikasko, Anton. (Anton'ek alde egiten dau).**

LIBE'K **Bai, oba izaten da geienetan orretara, nik uste. Orixe esan deust goizeon nire aizta Miren'ek be.**

IÑAKI'K **Eta guztiz zuzen zagoze. Neskatilleak izan bear leuke bietan gazteena: mutillak dituan urteen erdiak eta amar geiago.**

LIBE'K **Ez dot ondo ulertzen.**

IÑAKI'K **Guztiz erreza da... Gizonaren urteen erdiak eta amar urte geiago izan bear leukez emakumeak. Mutillak ogetasei baditu, neskatilleak ogetairu. Ogetaseiren erdia amairu dira: amairu ta amar, ogetairu.**

LIBE'K **A bai: polito dago ori. Orduan, mutillak ogetamar izan ezkeru, neskatilleak ogetabost.**

IÑAKI'K **Bai. Eta gizonezkoak irurogei urte baditu, emakumeak berrogei, ezta?... Eta gizona larogei urtekoa bada...**

LIBE'K **Larogei urte? Larogei urtekorik ez da ezkontzen.**

IÑAKI'K **Bai, ezkontzen dira. Gizona larogei urtekoa bada, emakumea berrogetamar urtekoa... Eta gizonak eun ta amar urte baditu...**

LIBE'K **(barreka): Eun ta amar urte! (Esku-ispillutxuan bere arpegiari begiratuaz, segundu batzutan ixilik geratzen da). Bai, zuzen zagoz... Orduan, nire aizta Miren ezkondu leiteke Andoni'gaz.**

IÑAKI'K **Nor da Andoni?**

LIBE'K **Miren maite-maite dauan mutil gazte bat. Alkarregaz ezkondu gura eben, baiña Miren Andoni baiño zarragoa da, ta beronegaz ez ezkontzeko esan neutsan nik, Miren'i.**

IÑAKI'K **Ederto esana. Ez litzatekez ezkondu bear.**

LIBE'K **Bai oster! Zuk diñozun lez, Miren'ek Andoni'ren urteen erdiak eta amar geiago ditu.**

IÑAKI'K **Baiña ez dozu esan zure aiztea Andoni baiño zarragoa dala?**

LIBE'K **Bai, alantxe da. Mutillak amazortzi ditu, ta Miren'ek emeretzi.**

IÑAKI'K **(gogoetan): Amazortziren erdia, bederatzi... A, bai! Ikusten dot. Bai, bai... (Biak, zurrut egiñaz, edontziak ustuten dabez. Anton konturatu egiten da).**

LIBE'K **Bai, Miren'ek emeretzi ditu: ni baiño zazpi urte gazteago da. Nik ogetasei dodaz... (Anton mai-ondora urreratu ta bertan geratzen da).**



**IÑAKI'K** **Ogetasei! Ederra sasoi!... Ta nik ogetamabi dodaz...**  
(*Une baten ixilik geratzen da, gogoetan. Biak itzik esan barik dagoz apur baten, alkarri begiratuaz*).


**BIAK BATERA** **Oo...! Orduan biok dogu sasoi egokia!** (*Biak batera ixiltzen dira*).

**ANTON'EK** **Ekarriko dot beste zeozer edateko?**

**IÑAKI'K** (*begiak Libe'gan josiaz eta onek albora begiratuaz*). **Ogetamabiren erdia, amasei. Amasei ta amar... Ee? Zer diñozu, Anton?**

**ANTON'EK** **Ezer geiago edateko, jauna?**

**IÑAKI'K** (*atsegin aundiz begiratuaz*): **Aa...! Edan? Bai, bai! Bai orixe! Zeozer geiago bear dogu, Anton. Bai orixe! Ekarki lengoak barrero, mesedez!**



## PITXI GORRIA

**ANTZESLARIAK** (Lagunak):

**AGIRRE** jauna.

**JONTXU** Agirre (mutikoa, Agirre jaunaren semea).

**MORROI** Bat.

**PERU** ta **MANU**, lapur bi.

**URIARTE** jauna, gizon aberatsa ta oso lodia.

*Tokia: Agirre jaunaren etxeko gela aundi bat. Leioak, aurre aldean, leiozapi (kortiña) urdin luzeak dabez. Morroi bat dabil, gelako gauzak bakotxa bere lekuan ipinten. Ogi zatiak eta beste janari batzuk ipinten ditu mai-ganean. Txiliñ-otsa izan da, ta morroia atera doa.*

### A

**MORROIA** **Aurrera. Nor zara zu?**

**PERU** **Uriarte jauna naz. Bera ikusten etorteko agindu deust Agirre jaunak.**

**MORROIA** **Bai, bai. Emen nabil ni, gauza guztiak zuretzat gertetan. Jesarri zaitetz, mesedez; Agirre jauna gertu barik dago. Laster jantziko da.**

**alde egin** . . . . . marcharse  
**egoki** . . . . . adecuado, conveniente  
**eritxi** . . . . . juicio, opinión  
**ezkongei** . . . . . soltero  
**gizatalde** . . . . . gentío  
**ispillu** . . . . . espejo  
**ostatu-etxe** . . . . . fonda  
**sasoiko** . . . . . de la edad  
**une** . . . . . momento  
**zear** . . . . . a través de

**zirudian** . . . . . parecía  
**ziur** . . . . . seguro  
**zurrut egin** . . . . . sorber  
**goizeon** . . . . . esta mañana  
**zuzen zagoze** . . . . . tenéis razón  
**gogoetan** . . . . . pensativo  
**ezkonduleiteke** . . . . . puede casarse  
**ez litzatekez ezkondu bear** . . . . . no debería casarse

- PERU **Itxarongo dot... Zu morroi barria zara ala? Ez zaitut ezagutzen.**
- MORROIA **Sei illabete daroadaz nik emen.**
- PERU **A! Nik ezin ezagutu: erbestean ibilli naz, urte bian, beste erri batzuetan... Artu, mesedez, nire txapel au. (Morroiak artu txapela ta kanpora daroa. Orduan, Peru leiorea doa, arin-arin, eta edegi egiten dau. Gizon txiki bat sartzen da leiotik, eta leio-zapi ostean gelditzen da, zutunik. Morroia barriro sartzen da).**
- MORROIA **Jauna: gertauko deusut zeozer edateko?**
- PERU **Bai, mesedez. (Morroia ba doa, edari billa. Peru be morroiaren atzetik doa. Artzen dau Peru'k zapi bat eta morroiaren arpegian ipinten dau, arin. Morroia, konorta barik gelditzen da).**
- PERU **Urten, Manu! (Leio-zapi osteko gizonak urten egiten dau).**
- MANU **Lokartu da, Peru?**
- PERU **Bai orixe! Ba dauka ordu batzuetarako loa... Kanpora eroango dogu. Oratu zuk anketatik. (Kanpora daroe morroia, alboko ate batetik). (Barriro sartzen dira. Oin-otsa entzuten da: ba dator batenbat).**
- PERU **Arin, Manu; ba dator batenbat. (Leio-zapi ostera doaz. Jontxu Agirre sartzen da gelan).**
- JONTXU **Ene! Gure aitaren laguna ez da etorri oindiño... Zeozer jateko gogoa dot. Ogi zatitxu bat artuko dot. Au bai ogi gozoa! Beste zati bat artuko dot. (Beste ogi zati bat artzen dau, ta jaten dagoala, Agirre jauna sartzen da).**
- AGIRRE **Zer! Ogia jaten? Oker ori! Ogi au neure lagunarentzat da, Uriarte jaunarentzat. Zuk ez dozu jan bear ogi au. Jan eta jan beti! Olan, laster lodi-lodia izango zara. (Jontxu'k eskuan dauka ogi-zatia).**
- JONTXU **Aita, ta zertarako dator, ba, Uriarte jauna?**
- AGIRRE **Neure pitxi gorria ikusteko dator Uriarte jauna.**
- JONTXU **Zer! Etxean daukazu pitxi gorria? Zeuk esaten izan dozu, ba, pitxi gorria ondo gordeta euki bear dala, urian; bestela, lapurrak etorri ta ostu egingo dabela.**
- AGIRRE **Bai, baiña urian zan ori. Gaur, ostera, etxera ekarri dot. Uriarte jauna gizon aberatsa da, ta pitxi gorria erosi gura dau. Geu be, pitxi gorri ori saldu ta gero, oso aberatsak izango gara.**


- JONTXU **Aita, erakutsi niri pitxi gorria!**
- AGIRRE **Ona emen. (Jontxu'ri emoten deutso pitxi gorria. Orduan leio-zapiak ikara egiten dabe). Zu, Jontxu! Gizon bat dago or, leioan. (Jontxu'k albora egiten dau. Peru'k eta Manu'k urten egiten dabe).**

B

- PERU **Orain, Agirre jauna, geldi ortxe, mesedez. Jaso gora eskuok! Jon, zuk be jaso gora eskuok! (Jontxu'k aoran sartzen dau ogi-zatia, ta gero jasoten ditu eskuak). Manu, zaindu zuk mutikoa: ez itxi Jon'i urtetan, ez zaratarik egiten.**
- MANU **Txotxo! Zaratarik egiten badozu, tiroa botako deusut, gero!**
- PERU **Orain, Agirre, emon niri kutxatilla ori.**
- AGIRRE **Zelan dakizu, ba, nik kutxatilla ori daukadanik?**
- PERU **Zelan? Ba, ara: Uriarte jaunaren baratzean egon zarie zuek: antxe esan deusazu zuk Uriarte jaunari, zeure pitxi gorria saltzea gura dozula. Nik dan-dana entzun dot: ormearen beste aldean egon naz. Olantxe dakit pitxia emen dozula, kutxatilla orretan. Ekarri, mesedez.**
- AGIRRE **Ez orixe! Ez deusut emon gura.**
- PERU **Ezetz? Orduan neuk artuko dot (zapi bat ipinten deutso arpegian Agirre jaunari. Agirre jauna konorta barik gelditzen da. Peru'k sartzen ditu eskuak Agirre jaunaren sakeletan, eta kutxatillea ataraten dau).**
- PERU **Emen dago kutxatillea! Orain geurea izango da pitxi gorria. (Edegiten dau kutxatillea). Ene! Pitxia ez dago emen! Pitxia ez dago emen! (Manu be kutxatillea ikustera doa. Orduan, Jontxu'k albora egiten dau ta argia amatau).**
- MANU **E, Jon, etorri ona! Bestela, tiroa botako deusut... (Manu'k tiro bat botaten dau).**
- PERU **Manu! Manu! Ez bota tirorik! Ertzaiñak entzun egingo dabe: ortxe dago ertzain bat, bide-ondoan... Baiña, nun dago Jon?**
- MANU **Ortxe dago, aulki andi orren ostean. (Manu'k gela-erdira dakar Jon).**
- PERU **Zer dozu aoran, mutiko?**



- JONTXU** **Ogia.**
- PERU** **Bai, gero? Zabaldu aoa, ikusteko.** (*Jontxu'k aoa zabaltzen dau. Aurreko atean txilin-otsa.*)
- PERU** **Arin, Manu! Ertzaiñak entzun dabe zure tiroa. Urten egin bear dogu, arin-arin.** (*Peru'k eta Manu'k urten egiten dabe, leiotik. Gizon zaar bat sartzen da: Uriarte jaun aberatsa da, pitxi gorria eroatera datorrena.*)
- URIARTE** **Zer, Jontxu? Aita gexorik dago, ala?**
- JONTXU** **Ez. Lapur bi etorri dira ona, pitxi gorria ostuteko. Oraintxe urten dabe leio orretatik, zure oin-otsak entzun dabezanean.** (*Agirre jauna iratzartu ta zutundu egiten da.*)
- AGIRRE** **E? Baiña, nun nago ni?... O! Nire pitxi gorria!... Nun dagoz?... Lapur biak?... Nun dagoz?... Geureak izan bear dau pitxiak!**
- JONTXU** **Lapurrak? Leio orretatik urten dabe, aita.**
- AGIRRE** **Bai? Ba, jarraitu egin bear deutsegu. Euren billa joan bear dogu. Nire pitxia! Nire pitxi gorria!**
- JONTXU** **Zure pitxi gorria? (Eskua erakutsiaz). Emen dago, aita.**
- AGIRRE** **Ene, Jontxu! Baiña, zelan daukazu, ba, zuk? Nun egoan, ba, ori?...**
- JONTXU** **Ara, aita: lapur biak pitxi billa ikusi dodazanean, orduan aoan sartu dot pitxi au, ogi zatiaz batera. Ta olan eurak ezin izan dabe aurkitu!... Larregi jaten dot, aita?...**
- AGIRRE** **Ez, barriro ez dot sekula esango, larregi jaten dozu-nik! Jan beti, gura dozun beste!**
- URIARTE** **Jontxu, asko jaten badozu, neu langoa izango zara: lodia ta aberatsa!**



## ERTZAIN-ETXEAN

**GALARDI JAUNA**, ertzain (polizi) bat.  
**BADIOLA JAUNA**, berrogei urte inguruko gizon bat.

(*Ertzain-etxeko idazgela bat. Arratsaldea. Galardi jaunak idazten diardu, erdiko mai batean. Atea zabaldu ta barrura sartzen da Badiola jauna. Ertzaiñaren aurrean zutunik geratzen da apur batean.*)

- GALARDI** (*Sartu danari begira eta idazteari itzita*): **Arratsalde on, jauna. Zer gura dozu?** (*Zutundu egiten da eta Badiola jaunagana dator.*)
- BADIOLA** **Beribil bat dala-ta nator.**
- GALARDI** **A bai! Ezbearren bat? Alkar-joteren bat?** (*Orri zuri bat artu eta idazteko asmoz jesarri egiten da.*)
- BADIOLA** **Ez, ez, ez orrelakorik. Orain ordubete, bidean ikusi dodan beribil baten zenbaki dala-ta nator.**
- GALARDI** **Zein zenbaki? Zein beribil?**

antzeslari . . . .	actor (de teatro)	konorta . . . . .	conocimiento
erbeste . . . . .	país extranjero,	kutxatilla . . . .	cofre; cajita
ertzain . . . . .	policia	pitxi . . . . .	joya
gertetan . . . . .	preparando	sakel . . . . .	bolsillo
iratzartu . . . . .	despertar	txilin . . . . .	campanilla

- BADIOLA Oba izango da dan-dana asieratik esatea. Nire izena, lenengo: Badiola'tar Patxi. Berrogeta bat urte dodaz. (*Galardi'k idazteari ekiten dautso*).
- GALAI DR Zure bizilekua, Badiola jauna?
- BADIOLA Aldapeta kalean, zortzigarrenean.
- GALARDI Aa! Emen bizi zara, uri onetan...
- BADIOLA Bai. Orra: Joan dan astean beribil bat erosi neban eta gaur, bazkal-ostean, batetik bestera nabillela, orra nun ikusten dodan beste beribil bat, nireak daukan matrikula berberagaz: BI-66.337. Arrituta geratu naz, jakiña. Nire beribillarena bardin-bardiña dalako: BI-66.337. Beribil bik matrikula bardiña izatea eziña da, ezta?
- GALARDI (*Idatzi ta idatzi, eten barik*) Ez ba, ezin izan. Ondo egin dozu ona etortez. Ba da or zeozer illun dagoana. Zer egin dozu, beribil ori ikusi dozunean?
- BADIOLA Lenengo, jakiña, guztiz arrituta geratu naz, eta atzetik jarraitu deusat. Aren zenbakia baiño besterik ez neban gogoan. Beribil bat ostuten danean, orixe egiten dabe lenengo, ezta?, zenbakia aldatu, ertzaiña aurkitu ez dagien. Ni ziur nengoan beribil a osturikoa zana.
- GALARDI Bai, izan leiteke. Ta gero, zer jazo da?
- BADIOLA Kale-Nagusian sartu da, ta ni bere atzetik. Alako baten, geratu egin da, eta txoferrak arin urten dau. Oñiez ibiltzen asi da, arin-arin, eta neu be aren atzetik. Ia ezin jarraitu neutsan. Eta orra nun sartzen dan denda aundi batean...
- GALARDI Zelako dendea zan?
- BADIOLA Gizonezko jantzien dendea. Ori dala-ta, neu be barrura sartu naz: besotik oratu deusat eta berbetan asi...
- GALARDI (*Asko idatziaz*): Aa! Beragaz itz egin dozu? Ederto!
- BADIOLA Bai. Beribilla nun erosi dauan itaundu deusat, eta arritu egin da. Arritu ta... asarrezko aurpegia ipiñi deust. Neure gauzetan sartzeko esan deust. Andra-gizon batzuk inguratu gaitue, eta danak arrituta begiratzen eusten. Ez nengoan pozik naaste orretan sartuta, baña beribillaren goraberea argitu egin gura neban.
- GALARDI Bai ba. Ondo egin dozu. Eta jaun arek urten egin dau barriro?

- BADIOLA Ez ba!
- GALARDI Zer jazo da ba?
- BADIOLA Bere izena zein dan itaundu deusat, eta ea nun bizi dan.
- GALARDI Ederto! Ta zein da bere izena?
- BADIOLA Ez deust esan. Dendako saltzaille bati dei egin eta ertzain baten billa joateko agindu deust.
- GALARDI Geroago ta arrigarriago!
- BADIOLA Bildurtuten asi naz orduan: Inguruko guztiak begirakada batzuk egiten eustezan egin! Astiro, astiro, aterantza egin dot. Batzuk oratu egin gura eusten, ez urteteko. Baiña jaun arek, niri joaten izteko esan deuste.
- GALARDI Bai, ikusten dot. Lapurra zan, eta ez eban ertzain bat egon nai...
- BADIOLA Ni, orduan, kalera urtenda, nasai geratu naz. Eta beribilean sartu ta ona etorri naz, zuei dana esatera. Bai, ziur naz beribil a osturikoa zana. Ostu ta... gero, matrikulea aldatu. Eta ain zuzen be, nire beribillaren zenbaki bardin-bardiña ipiñi... Ostu dabe beribillik emen, oraintsu?
- GALARDI Bai, orain aste bi ostu eben bat, eta ez da oraindiño agertu.
- BADIOLA Ziur naz bera dana. Zelan agertuko da ba, zenbakia aldatuta badauka? Aren matrikulea orain auxe da: BI-66.337. Zenbaki ori daukan beribilla ikusten badozue, axe da osturikoa.
- GALARDI Tamala da gizon arek bere izena ez esatea. Zelako itxurea eukan?
- BADIOLA Gizon egokia, ondo jantzia. Itz egin deustanean, arritu egin naz: Ez eban lapurren antzera itz egiten. Gizabidez egiten eban... Bearbada, ez zan bera lapurra, beribilla lapurrari erosi eutsana baiño.
- GALARDI Beribilla, zelakoa zan? Aundia? Txikia? Zein margetakoa?
- BADIOLA Urdiña zan, urdin argia.
- GALARDI Orduan ez da orain aste bi osturikoa. A baltza zan. Urdiña diñozu? (*Idazteari itzi barik*).



- BADIOLA Bai, urdiña. Eta txakur bat egoan barruan. Jaun arek urten ebanean, txakurra barruan itzi eban.
- GALARDI Zelakoa zan txakurra? Konturatu ziñan?
- BADIOLA Bai ondo be. Atzeko leio-ondoan joian, eta beribillari atzetik jarraitu neutsanean, txakur arek niri begiratzan eustan. Txakur txiki zuria zan. Bai, eta ule laburra ta belarri luzeak eukazan. Eta lepoan, baltzuneak...
- GALARDI Txakur txiki zuria, ule labur eta belarri luzekoa, eta baltzunekaz...? Orduan Tximi lakoa.
- BADIOLA Tximi?
- GALARDI Bai, Tximi. Olan deritxo Berrospe andrearen txakur txikiari. Ondo baño obeto ezagutzen dot.
- BADIOLA Baiña, eundaka izan leitekez orrelako txakurrak.
- GALARDI Ez uri onetan... Egon apur baten, Badiola jauna. Oraintxe jakingo dogu. (*Urrutizkiñera doa, ta bertatik dei egiten dau*). Ipiñi eistazu Berrospe jaunagaz. Dei egiozu dendara lenengo, oraindiño an egongo da-ta, nire ustez. Eta an ez bada, deitu bere etxera... (*Urrutizkiña itzi barik, Badiola jaunari itz egiten deutso*). Denda ori Kale Nagusian zala diñozu?
- BADIOLA Bai, alantxe da.
- GALARDI Ba... Berrospe jauna, kale orretako denda aundi baten ugazaba da. Bere dendan sartuko zan... Zein tokitan dago denda ori, gitxi gora-bera?
- BADIOLA Kale-buruan, eleiza-aurreko plaza-ondoan.
- GALARDI Orixe da, ba, Berrospe jaunaren deendea. (*Urrutizkiñez berbetan*) Berrospe jauna? Arratsaldeon, jauna. Emen Ertzain-Etxea. Parkatu, baiña... Itaun bat egin gura deusut. Zure denda orretan gizon ezezagun bat egon al da oraintsu zugaz berbetan, asarre antzean?... Bai?... Eta zure izena ta bizilekua itaundu deusuz?... Bai, bai, orain ulertzen dot dana. Esan gura deustazu zure beribillaren matrikulea?... Bai, zenbakia... A bai: BI-66.337. Arritzekoa benetan! Gizon orrek beste beribil bat dauka, zenbaki bardin-bardiñagaz... Noztik daukazu zuk beribilla? Urte bat eta erdi? Bai, bai... Naikoa da. Ez deusut geiago nekerik emongo. Eskerrik asko zure laguntzagaitik... (*Urrutizkiña itzi eta Badiola jaunagana*

dator). Zer uste dozu orain, Badiola jauna? Denda aundi baten ugazaba, beribil-lapurretan asiko dala uste dozu? Berrogei beribil be erosi leikez, gura izan ezkerro. Eta orain daukan beribilla, ba da urte t'erdi erosi ebalaa...

- BADIOLA Zer esango dot ba? Ez dot ezer be ulertuten.
- GALARDI (*Nasaikiro*): Zelan eskuratu zenduan zure beribilla?
- BADIOLA (*Asarre*): Erosi egin neban. Zortzi milla ogerleko ordainduta...
- GALARDI Orduan ez zan beribil barria, esku-ganean (*bigarren eskukoa*) erosi zenduan... (*Idazteko asmoz jesarri egiten da barriro*). Non erosi zenduan?
- BADIOLA (*Artega*) Jaubeari. Izparringian ikusi neban iragarki bat.
- GALARDI Zein izparringitan?
- BADIOLA «Aurrera» egunerokoan. Jaubeak beribilla saldu gura eban, eta nik orduan idatzi egin neutsan.
- GALARDI Zein da jaubearen izena? Zein zan aren zuzenbidea?
- BADIOLA Ez eban ez izenik ez bizilekurik aitatzen: Ezaugarritzko zenbaki bat baiño ez eban emoten. Idatzi neutsanean, estalkian zenbaki ori ipiñi neban. Eta andik laster, erantzuna etorri jatan. Joan dan astelenean, eguerdiko amabiterdietan, geltokiko atarian egoteko iñoan. Joan nintzan eta antxe egoan nire begira. Beribillean sartu ta alkarregaz joan-etorri txiki bat egin genduan. Gero, Diru-Etxe batera joan, eskatuten eban diru-saria ordaindu, eta beribillean etxeratu nintzan.
- GALARDI Zein zan saltzaillearen izena?
- BADIOLA Etxebarria jauna.
- GALARDI Etxebarria asko dira lurralde onetan. Zelakoa zan beribilla?
- BADIOLA Seat txiki bat, ate bikoa, baltza. Matrikulea...
- GALARDI Bai, ba dakit: BI-66.337... Beribillaren agiria emon eusun?
- BADIOLA Ze agiria?
- GALARDI Ondo dakizu, Badiola jauna, beribil bakotxagaz, agiri bat emoten dana. Eta agiri orretan, jaubearen izena ta zuzenbidea egoten dirana.

**BADIOLA** A, bai. Baiña Etxebarria jaunak, agiria etxera bialduko eustala esan eustan, urrengo egunean... Guztiz begikoa zan jaun ori. Berak egingo eustazan zeregin guztiak: jaubearen izen-aldakuntzea eta ganerako guztiak.

**GALARDI** Ez dozu Etxebarria jaun ori geiago ikusiko. Beribil ori, orain aste bi Saizar jaunari osturikoa da. Oraintxe joango gara ta ikusiko dogu. Baiña, nire ustez, zortzi milla ogerlekoak ondo galduta daukazuz, Badiola jauna... Goazen, goazen. (Alkarregaz joan egiten dira).

agiri . . . . . documentación  
aitatu . . . . . mencionar  
aldakuntza . . . . . cambio  
aldatu . . . . . cambiar  
alkar-jote . . . . . choque  
baltzune . . . . . mancha negra  
begirakada . . . . . mirada  
beribil . . . . . automóvil  
deritxo . . . . . se llama  
diardu . . . . . está  
ea . . . . . a ver  
eskuratu . . . . . conseguir  
estalki . . . . . sobre; cubierta  
eten barik . . . . . sin parar  
eundaka . . . . . a cientos  
ezaugarri . . . . . señal, referencia  
ezbear . . . . . desgracia  
ezezagun . . . . . desconocido

eziña . . . . . imposible  
geltoki . . . . . estación  
gizabide . . . . . educación  
idazgela . . . . . escritorio (des-  
pacho)  
iragarki . . . . . anuncio  
itaundu . . . . . preguntar  
izparringi . . . . . periódico  
margo . . . . . color  
naaste . . . . . enredo  
nasai . . . . . tranquilo  
nasaikiro . . . . . tranquilamente  
ordaindu . . . . . pagar  
saltzaille . . . . . vendedor  
tamal . . . . . pena  
urrutzikin . . . . . teléfono  
zenbaki . . . . . número  
zuzenbide . . . . . dirección

## ESKUTITZ GALDUA

Lagunak: — Bolnia-ko ERREGEA.  
— PAUL Printzipea, Erregearen anaia.  
— JON, morroia.  
— MATXIN, Jon-en aita zaarra.  
— DUPIN jauna.  
— lru gizon.

### LEENENGO AGERRALDIA: Errege-etxean

(Erregea jesarrita dago, idazten. Erregearen anaia, Paul Printzipea, sartu ta zutunik gelditzen da, Erregearen aurrean).

**PAUL** Nori idazten deutzazu, anaia?  
**ERREGA** Prantzia-ko Erregeari idazten deutzat, Paul. Inok ez dau ikusi bear eskutitz au. Eskutitz au norbait ikusten badau, orduan burrukea sortuko da. Saxia-ko Erregea burrukan asiko jaku. Gerrea sortuko da.

**PAUL** Gizon batzuk etorri dira or, zu ikustera, bide barria dala-ta. Esango deutset ona sartzeko?  
**ERREGA** Ez! Neu joango naz kanpora, ta atarian ikusiko dodaz. Zu, bitartean, egon emen. (Erregeak argiontzia ipinten dau eskutiz ganean, au gordetako. Gero, kanpora doa. Paul Printzipea jesarri egiten da ta liburu bat artzen dau. Jon morroia sartzan da gelan. Zapi bat dakar eskuan. Gelea garbitzen asten da. Maia be zapiaz igorditen dau. Jaso argiontzia, ta garbitzen asten da. Orduan, eskutitza



ikusten dau. Zapia ipinten dau, arin-arin, eskutitz-azpian. Gero, jaso zapia, eskutitz ta guzti, ta urten egiten dau, arin. Berak urten eta Paul-ek dei egiten deutso).

- PAUL Jon!  
JON Bai, jauna.  
PAUL Jon, gaur basora noa ni, zaldi-ganean. Mesedez, garbitu nire zaldia. Zeu be neugaz etorriko zara.  
JON Bai, jauna. (Jon ba doa. Erregea sartzen da. Maira doa. Argiontzia jasoten dau).  
ERREGE Paul, zuk artu dozu nire eskutitza? Ementxe itzi dot nik; baiña orain ez dago emen.  
PAUL Ez, nik ez dot artu. Ortxe egon bear dau.  
ERREGE Ba ez dago emen. Zer egingo dot nik? Saxia-ko Erregeak eskutitz ori ikusten badau, gerrea sortuko da! Zer egingo dot nik?... Sartu da iñor gelara?  
PAUL Morroi bat sartu da.  
ERREGE Zein morroi?  
PAUL Jon.  
ERREGE Uste dozu orrek artu dauala?  
PAUL Ez dot uste orrek artu dauanik zure eskutitz ori. (Atera doa): Jon! Jon! (Sartzen da Jon).  
JON Bai, jauna.  
PAUL Zu gela onetara sartu zareanean, ikusi al dozu eskutitz bat mai-ganean?  
JON Ez, jauna. Nik ez dot eskutitzik ikusi.

#### BIGARREN AGERRALDIA: DUPIN JAUNAREN GELAN

(DUPIN jauna leio-aurrean dago, zutunik. Maira doa gero, arin-arin, ta jesarri egiten da. Dandabatxu bat atean).

- DUPIN Aurrera. Aurrera, Paul Printzipe ori! (Errege ta Paul Printzipea sartzen dira. Paul-ek bizar aundi bat dauka. Erregeak arpegia estalduta dakar).

- PAUL Zelan ezagutu gaituzu ba?  
DUPIN Nik dana dakit... Zer egin bear dot zuen alde?  
PAUL Ara: Erregeak eskutitz bat idatzi eban...  
DUPIN A! Eskutitz bat idatzi eban... ta norentzat?  
PAUL Ori ez deusut esan gura.  
DUPIN Dan-dana esan bear deustazu... Eskutitz ori, Prantzia-ko Erregearentzat izango zan, ezta?  
PAUL Ixilik! Ez gero, ori iñori aitatu! Iñok be ez dau jakin bear ori. Saxia-ko Erregeak jakiten badau, gerrea sortuko da...  
DUPIN Baiña norbaitek jakingo dau... Zuek eskutitz ori galdu egin dozue, ezta?  
ERREGE Bai, eskutitza galdu egin dogu. Mai-ganean itzi neban nik, neure gelan. Paul, nire anaia au, antxe egon zan gelan. Ez zan iñor sartu gelara...  
DUPIN Iñor bere ez?  
ERREGE Bai, Jon morroia sartu zan gelara. Besterik iñor bere ez zan sartu.  
DUPIN A!  
PAUL Zer uste dozu zuk? Morroiak artuko ebalá eskutitza? Ez, ez eban arek artu eskutitza. Aren geleá arakatu dogu, ta ez dago an eskutitza. Aren sakelak be arakatu doguz. Alde guztiak arakatu doguz, baiña alperrik: ez dogu ezer aurkitu.  
DUPIN Orduan, berak dauka aldean. Aldean daroa. Bere soiñekoetan gordeta daroa.  
PAUL Ta zelan arakatuko doguz aren soiñekoak?  
DUPIN Entzun. Zoaz zu zaldi-ganean basora. Jon be eroan zeugaz. Neu be baso orretara joango naz, iru gizonegaz, eta orduan diru guztia kenduko deusuet: ganera, zuen soiñekoak be arakatu dodaz, diru geiago edo pitxi geiago ete dozuen ikusteko. Gaur eguerdian joan ta txabola txikiaren ondoan ibili ego-aldeko bidetik. An izango naz neu be. (Dupin zitundu egiten da. Atea idigi, ta Erregea ta Paul Printzipea kanpora doaz).

IRUGARREN AGERRALDIA: BASOAN

- PAUL *(Kanpotik)*. Oñiez ibiltea gura dot. Zaldietatik jatsi egingo gara emen. Etorri, Jon. *(Paul Printzipea ta Jon sartzen dira)*.
- PAUL Au bai baso ederra! Ta auxe da tokirik ederrena, txabola onen inguru au. Ezagutzen dozu au, Jon?
- JON Bai orixe! Ondo ezagutzen dot nik au. Sarritan ibili naz inguru onetan. Gure aita zaarra be emen-txe ondoan bizi da... Baso onen beste aldean bizi da.
- PAUL A! bai? Ta noiz ikusi dozu azkenengoz aita?
- JON Ba... noiz ikusi dot, ba? A, bai! Zeuk eskutitzaren barri itandu zeunstan biaramonean izan zan. Ba dakizu... Erregeak galdutako eskutitz a.
- PAUL A, bai!... Orain jesarri egingo gara. *(Dupin jauna dator, iru gizonegaz)*.
- DUPIN Zutunik biok eta geldi! Bestela tiro bana botako deusuet! Gora eskuak! Ea, neure gizonok, kendu orrei dirua! Kontuz, gero; ez itzi ezer gordeta. Arakatu ondo euren soñekoak be!
- JON Ni morroi bat baiño enaz. Nik ez daukat dirurik.
- DUPIN Ene! Morroia? Sarritan morroiak eukiten dau gordeta jaun aberatsaren dirua; orduan, jaun aberatsak esaten dau: «Nik ez daukat dirurik». Eta morroiak esaten dau: «Ni morroi bat baiño ez naz»... Eta, olan, guk ez dogu ezer irabazten. Arakatu ondo morroia be! *(Gizonak Paul-en dirua Dupin jaunari emoten deustoe. Jon-en soñekoak be arakatzten dabez. Gero, joan egiten dira)*.
- JON Ai ene! Ai ene! Nire amar urre-diruak! Amar urre-diru euki dodaz nik aldean, eta kendu egin deustez.
- PAUL Ez egin negarrik: neuk emongo deusteu diru ori... Ta besterik ezer kendu deusteu? Niri eskutitz eta paper guztiak be kendu deustez...
- JON Niri ez; nik ez dot euki aldean ez eskutitzik, ez paperik...

LAUGARREN AGERRALDIA: DUPIN JAUNAREN GELAN

- (Dupin jauna mai-aurrean dago, jesarrita. Paul Printzipea ondoan dago, zutunik)*.
- DUPIN Ez, an ez egoan eskutitzik. Ez eukan paperik.
- PAUL Eta ba eukan dirurik?
- DUPIN Ezta.
- PAUL Ezetz? Amar urre-diru eukazala esan eustan, ba, berak. Eta nik, beste amar urre-diru emon deustadaz. Gaiztoa da, benetan, morroi ori!
- DUPIN Bai, neuk be entzun neban, arek zuri zer esan eutsun.
- PAUL Noiz?
- DUPIN Zu txabola ondoan zengozala. Bere aita be aitatu eutsun.
- PAUL Bai. Baiña, zergaitik diñozu ori? Aitak ez eban artu Erregearen eskutitza.
- DUPIN Ez. Arek ez eban artu. Baiña, bear bada, berak eukiko dau. Noiz joan zan Jon aita ikustera? Eskutitza artu eban biaramonean. Biaramonean!
- PAUL Orduan, etxe ori be arakatu egin bear dogu.
- DUPIN Ez. Ezin dogu ori egin. Ezin dogu orren etxera joan eta eskutitzaren billa asi. Berak esango deusku: «Nik ez dakit eskutitz orren barri». Eta, arakatuta be, ez dogu aurkituko. Eskutitz bat gauza txikia da. Gauza erreza da eskutitz bat gordetea, iñok ez aurkitzeko eran.
- PAUL Zer egingo dogu, orduan?
- DUPIN Ba dakit zer egin. Nik beti jakiten dot zer egin. *(Dupin jauna atera doa. Bere iru gizonen deitzen deuste. Sartzen dira oneik)*. Ara: oraintxe azalduko deusuet nire asmoa: Matxin zaarraren etxera joango naz ni. Barrura sartu aurretik, papera ta egurra ipiñiko dodaz Matxin-en etxeko leio-aurrean. Zuetariko batek leiotik barrura begiratuko dau, baiña zeun burua agertu barik, gero!... Ni neure kokotari azka asiko naz. Ni ori egiten ikustean,



- emon sua paperari. Gero, deadar au egin: «Sua! Sua! Etxea sutan dago!»... Auxe da dana.
- GIZONAK **Ondo dago. Ba dakigu zer egin. Ta noiz joango gara, ba?**
- DUPIN **Oraintxe. Neu be laster elduko naz ara.**

**BOSGARREN AGERRALDIA: MATXIN-eneko gela baten**

*(Matxin zaarra jesarrita dago, irakurten. Deadar bat entzuten da kanpoan: «Etorri! Lagundu niri!»). Matxin atera doa.*

- MATXIN **Zer? Zer jazoten da?**
- DUPIN **Ai ene! Ondo-ezik nago. Ai! Lagundu niri! Itzi niri barrura sartzen, mesedez! (Matxin-ek atea idigiten dau).**
- DUPIN **Basoan ibili naz zaldi ganean, eta ondo-eza egin jat. Ezin naz ibili be... Jesarriko naz ementxe, apur baten?**
- MATXIN **Bai, jesarri. Baiña jatekorik ez deutsut emongo. Eskeko asko etorten da ona, ta jatekoa eskatzen dabe. Nik kanpora botaten dodaz danak. Zergaitik ez dabe lanik egiten? Alper andi batzuk dira orreik!**
- DUPIN **Ba, ara: ni ez naz eskekoa. Nik ez dot jatekorik gura. Ementxe jesarrita egotea baiño ez dot gura, ta gero aurrera jarraitu. Eskerrik asko! (Matxin jesarri barrero, ta irakurten asten da).**
- DUPIN **Au bai baso ederra! (Matxin-ek ez diño ezer).**
- DUPIN **Gaurko beroa bai aundia, ezta? (Matxin-ek ez diño ezer).**
- DUPIN **Zu... Ezagutzen dozu zuk iñor Erregearen etxean? Nik ezagutzen dot bat, Jon izenekoa...**
- MATXIN **A, bai?**
- DUPIN **Gizon langillea ta zuzena da.**
- MATXIN **A! Ta Jon-ek ezagutzen zaitu zeu?**

- DUPIN **Bai, ondo ezagutzen nau. Ta laster obeto ezagutuko nau... Nire izena Smith da.**
- MATXIN **Smith? Ez dau, ba, berak zure izenik egundo aitatu.**
- DUPIN **Jausi egin naz basoan: arbola bat jo dot buruaz. (Kokotari azka asten da) (Kanpoan zaratea. Deadarrak: «Sua! Sua...») Leio-aurrean sua ikusten da. Matxin ormara doa, arin. Jaso arri bat eta eskuan ipinten dau. Eskutitza artzen dau. Bere ondoan dago Dupin jauna. (Matxin Dupin-i begi-begira).**
- DUPIN **Eskerrik asko, Peru. Auxe da zure izena, ezta? Bai, ba dakik nik. Nik dana dakit. Zu ondo ezagutzen zaitut... Emon niri eskutitz ori.**
- MATXIN **Ez. Au neure semearen eskutitza da.**
- DUPIN **Ez da zure semearen eskutitza. Erregearen eskutitza da ori... Saxia-ko Erregeak dirua emon deusue zuei, guk zer egiten dogun jakiteko eta Erregearen eskutitzak ostuteko.**
- JON **Bai, egia da: emon deusku... Baiña, zelan jakin dozu zuk, eskutitz ori gure etxean euki dogula gordeta? Zelan jakin dozu zuk, ormazuloan euki dogula gordeta?**
- DUPIN **A! Nik dana dakit.**

O I A L A

## LAPURRAK DATOZ

ANTZESLARIAK (Lagunak):

- ARANA-tar JOSE, tratularia.
- EDURNE, Joserren emaztea.
- SABINTXU, euron semea, 10 bat urtekoa.
- ANTON ATXA, Aranatarren adiskide bat.

---

### 1.—GO AGERRALDIA

*(Tokia: Arana-tarren basetxe ederreko eskaratz txukun bat.—Abenduko arratsalde otz illun bat: amarrak-edo dira... Jose Arana, telefonoa eskuan, berbetan; Edurne, aren emaztea, suari sugarri geiago botaten...)*

- JOSE *(Urrutizkiñez)* Zer diñozu? Nire zaldietako bat?...  
Bai, joan dan astean erosi neban... *(Goragotik berba egiñaz)*: Zer! Baiña ziur zagoz, gero?... Bai, alan da... Orduan, amaiketan etorriko zareala ona? Ederto!... Ta eskerrik asko. Laster arte: asko poztuko nau, zu emen ikusteak... *(Telefonoa eskegi egiten dau).*
- EDUERNE Zer izan da ori, Jose? Zure zaldiren bat erosi gura dabe, ala?
- JOSE Erosi? Bai, erosi! Ostu da egin gura dabena!... Zera zan, Anton Atxa. Onek diñoanez, or ei dabil batenbat, gure «Baltza» ostu gurean.
- EDURNE «Baltza»? Ezta, ba, orixe, zuk joan dan astean erosi zenduan zaldi baltz ederra?

- JOSE Bai, orixe da. Egia esan, ez neban nik gauza andirik ordaindu zaldi orregaitik, baiña orain asko maite dot: bizkor-bizkorra da, izan bere, ta salto egiten bere ederto daki. Ondo salduko dodala uste dot.
- EDURNE Ta, nor da, ba, zaldi ori ostu gura dauana? Ez daki ezer Antonek?
- JOSE Ez, ez daki gauza garbirik... Badaezpadako gizon bi entzun ei ditu berak, ibai ondoan, illunetan berbetan. Anton urreratu danean, alde egin ei dabe gizonok. Baiña berba batzuk, beintzat, entzun ei ditu Antonek: «Baltza», «amabietan» eta «eroan Basozabal baserrira»...
- EDURNE Basozabal baserrira? Baiña an ezpada iñor bizi! Orma zaar guztiak bere ia jausi-bearrean dagoz an...
- JOSE Olantxe da, bai. Baiña baserri zaar ori ondo ezkutuan dago, bide nagusitik oso urrun. Toki egokia, benetan, lapur batentzat. Bear bada, zalburdiren bat-edo izango dau an, iges egiteko gertu...
- EDURNE Orduan, zergaitik ez deutzazu poliziari dei egiten? Arin badatoz, errez eskuratuko dabe lapur ori.
- JOSE Poliziari dei egin? Ez, ezta ori biderik onena. Nork daki zein gabetan etorriko dan lapur ori? Guk, beintzat, ez dakigu. Bear daba, gaur gabean etorriko da; bear bada, biar gabea... edo beste edozein gabetan... Ganera, Antonek esan deust, deitu deutzala berak poliziari, baiña zeregin asko ei dauke ertzaiñok: ez ei dauke astirik alperrik galtzeko, gauero-gauero lapur bati emen itxaroten... Lapurra datorrenean eskuratuko ei dabe; orduantxe deitu bear deutsegu guk ertzaiñei.
- EDURNE Baiña, Jose; ta gaur etorriko balitz, zelan menperatu lapurra, zeuk bakar-bakarrik? Gauza bildurgarria da ori; bear bada, ezbearren bat etorriko jaku ortik...
- JOSE Ez izan bildurrik, Edurne: Anton bera etorriko da ona, amaiketan, gauza guztiak zeatzago azalduko... Ganera, gertu dago Anton gauero ona etorteko bere, lapur ori gure eskuetan jausi arte.

EDURNE

Ba dakizu: Anton gizon indartsua da, ta neuk be eskopeta ederra daukat...

Olan bada, ederto. Anton Atxa nire begikoa da. Uriko bizimodua ain zoragarria da, izan bere; baiña, urian bizi arren, Anton dogu gu ikustera etorten dan adiskide bakarra... Zer! Euria? (Leiora doa, zerbaiten zaratea entzun dau-ta. Baiña ezta euririk: ate erdi-edegian SABINTXU agertu da, bere gau-jantzi ta guzti). Sabintxu! Zergaitik ez zagoz oean?

## 2.—GARREN AGERRALDIA

SABINTXU

Telefono-otsa entzun dot; gero aitatzok «Baltza» aitatu dauala bere bai, ta orduan jagi egin naz, dan-dana entzuteko... (Amagantik alde egin eta aita-gana doa). Aita: oso polita da zaldi ori. Ez itzi, gero, iñori zaldi ori ostuten!

JOSE

Ez, ume, ez izan orren ardurarik. Antonek eta biok artuko dogu «Baltza»-ren ardurea.

SABINTXU

Baiña, aitatzok, lapur orrek aldatu egingo ditu, bear bada, bere asmoak... Ez ete da, gero, ordu bietan etorriko, edo beranduago...?

EDURNE

Zu ixillik! Aitatzok eta Atxa jaunak eurok jakingo dabe zein dan biderik onena, lapur ori atrapateko... Orain, bada, zoaz barrero oera, ainbat ariñen... Zer? Oñetakorik bere ez dozu jantzi? Otzitzen bazara otzitu, ba, ederrak emongo deutzadaz, gero!

SABINTXU

(Amaren esanei ez-entzun egiñik): Aita, aitatzok, jantziko naz neu bere, zuoi laguntzen joateko?

JOSE

Ez, Sabin... Entzun dozu amak zer esan deutzun. Zoaz oera, ta datorren goizean neuk esango deutzun dan-dana... (Sabintxu triste jarten da, ta ba doa, astiro-astiro, bere gelara... Jose aldizkari bat irakurten asten da: mutikoaren erazoia ulertu arren, emaztearen bildur da... Gerotxuago musika ixiltu bat ipiniko dau... Emaztea ta biak, jesarrita, irakurten... Gero, Anton Atxaren beribil-otsa entzun dabe kanpoan: Jose kanpora doa, arin, bere adiskidearen billa, ta biak batera sartzen dira...)



### 3.—GARREN AGERRALDIA

- ANTON ATXA Ederto, bada; emen nozue... Gabon, Edurne; zelan zagoz? Asko poztuten nau beti bere zu ikusteak. Zeuk ondo dakizunez, nire bizitzan gauzatxu bik baiño ez nabe beteten: emakume ederrak eta zaldi ederrak...
- EDURNE (*Irribarrez*): Zagoz ixillik, oker ori!... Ba noa; kafetxu bero bana gertauko deusuet: gau otza dago, egon bere, zaldi-lapur baten zain egoteko. Berogarri apur bat bear ko dozue zeuen barruan. (*Maitekiro begiratzen deutso Anton-i, ta gero gelatik urten egiten dau...*)
- ANTON Ederto, ba, Jose... «Baltza» ori zaldi ederren bat da, antza... Orain, auxe bakarrik da jakin bear doguna: gaur gabean etorriko ete da lapurra? Ala biar gabean? Ala noiz?
- JOSE Nork jakin ori?... Baiña ezingo dogu ezer erabagi, Edurne kafeagaz etorri arte: berak be dan-dana jakin gura dau... Ba dakizu: Edurne ezta baserritarra, kaletarra baiño; orregaitik, pozik egoten da ori zinea-ta ikusten, batez bere lapurrak-eta sarri agertzen badira. Orain, bada, berton izango dau lapurra; ta, ori dala-ta, poz-pozik dagoala dirudi...
- ANTON Ederto. Nire ustez, pozik badago, ondo dago, ezta? (*Antonon berbakerea apur bat arrigarria da; baiña une onetan Edurne sartzen da, ta Josek ez dau erantzuteko astirik*).
- EDURNE Emen dozue, bada, zeuon kafetxua. Ura, zu etorri aurretik neukan berotuta, Anton... Orain, bada, entzun daigun lapurren zer ori, goitik beera...
- ANTON Ondo dago... Ba, antxe ibili naz ni, ibai ondoan gora ta beera, neure txalupea itxi dodan leku inguruan. Illun egoan ta ni... Entzun! Zer da ori? (*Oin-otsak entzuten dira kanpoan; aurreko atea itxita dago ta alboko atea idigita*).

### 4.—GARREN AGERRALDIA

- JOSE Sabin! Zetan zabiltz? Nun egon zara?
- SABINTXU Arin! Arin! Emen dabil lapurra, aitatxo. Emen dabil lapurra.

ANTON

(*Oso arrituta*): Bai zera! Ori ezta egia. Nire ustez, goizegi da oraindiño. Ziur zagoz, gero, ume? Zer ikusi dozu?

SABINTXU

(*Aitari begira*): Aita, nik ezin izan dot lorik egin. Zeuri laguntzea gura neban, eta, orregaitik, jagi ta jantzi egin naz. Neure lo-gelako leiotik begira nengoala, argi bat ikusi dot: gizon bat, landatik, kortetarantz joan da. Orduan neu bere kanpora joan naz, ixil-ixilik, eta zain egon naz. «Baltza»-ren kortan ezta sartu; aurrera egin dau, ezkerretara; gero, ez dot ezer ikusi. Baiña entzun bai: ondo entzun dot zelan ate bat idigi dauan... Arin ibili bear dogu; bestela, lapur orrek iges egingo deusku.

JOSE

Ederto, Sabintxu! Ekarrri arin argi bat, eta etorri zeu be gure atzetik. Antonnek eta nik libre euki bear doguz eskuak, lapur orrek burrukan egin gura badau bere... (*Emazteari*): Zergaitik bildur-arpegi ori, maite? Mutikoa geugaz dator, eta ez izan ezeren bildurrik. Zu zeu emen gelditu, baiña zain egon poliziari dei egiteko: laguntasunik bear badogu, Sabintxu bialduko dogu etxera; orduan, deitu zuk ertzaiñei... (*Ba doaz. Edurne leiõra doa, ta idigi egiten dau. Begi-begira dago ta zuur, baiña geldi dago dana. Ezta ezer entzuten... Amar bat minutu geroago, etxera biurtzen dira mutikoa ta gizon biak*).

### 5.—GARREN AGERRALDIA

ANTON

Jausi da, ba, Edurne! Nire gorputz aundi au ikusi dauanean, ez dau zirkiñik bere egin!

JOSE

Bai. Antxe itzi dogu, ondo lotuta, asta-kortan. Ertzaiñak etorri arte, ez dogu askatuko... Baiña, gauza arrigarria da au, gero! «Zuri» ostu gura izan dau, ez «Baltza»...

EDURNE

«Zuri»? Baiña, zer dala-ta «Zuri»? Balio andikoa da zaldi ori, ala?

JOSE

Amerikano aberats batzuri saldu gura eutsen, antza. Amerikano orreik zaldi zuri bat gura ei dabe, euren alaba bakarrarentzat: amazapi urteko neskatillearentzat. Ez da gauza erreza, izan



bere, olango zaldi zuri-zuri bat aurkitzea, ta, orregaitik, amerikano aberats orreik gertu ei dagoz diru-mordo ederra emoteko... (Urrutizkiñera doa). Ederto. Orain, ertzaifñei deitu bear deutset: «Basozabal»-era bizkor badatoz, beste lapurra bere eskuratuko dabe...

ANTON

Zu, Jose: itxaron, mesedez. Dei ori egin aurretik, neuri entzun bear deustazu. (Arpegia gorri-gorri daua): Ara: nik gauza au aitatu bere ez neutsen egin ertzaifñei... Ganera, gizonik bere ez neban entzun ibai ondoan. Ipuin utsa izan da dan-dana. (Aranatarrak aak zabal-zabalik begiratzen deutsoe, ezer esateko adorerik barik: ain arrituak dagoz!): Parkatu, Jose, baiña lapurraren zer ori, guzur utsa zan...

JOSE

Baiña, nungo guzur utsa? Ara, Anton: nik ez dot ezer ulertzen: ori guzti ori egia izan da! Lapurra etorri egin da.

ANTON

Bai, olantxe da. Lapurra etorri egin da. Ta auxe da gauzarik arrigarriena. Bear bada, nik amesetan-edo ikusiko neban, lapurra etorriko zana. Ez dakit, ez dakit...

EDURNE

Sinisten deusut, Anton. Baiña, zergaitik sartu deuskuzu guri guzurrezko ipuin au?

ANTON

(Geroago ta gorriago arpegia): Zeugaitik, Edurne... (Jose Aranari begira): Entzun ondo, mesedez, neure aspaldiko lagun orrek... Zuek ementxe sartuta bizi zarie beti, iñora urten barik. Egia esan, zu zeuk, Jose, asko maite dozu baserriko bizimodua, ta Sabintxuk bere bai; Edurne, ostera, ez da zuen antzekoa: uri-zalea da emakume au. Uriko zaratea ta argiak maite ditu onek. Lagun artean ibiltea jako atsegin, eta emengo bizimodua bake-tsuegia da Edurnentzat. (Edurnek eskua jasoten dau, ixilik egoteko esanaz, baiña Antonek ez-ikusit egiten deutso, ta berbetan jarraitzen dau). Bere lagunakana bere ezin da au joan, autorik bere ez dozue-ta; zaldurditxu bat baiño ez dozue. Sabin umetxua zala, naikoa zeregin eukan Edurnek umetxua jagoten; baiña orain Sabin eskolara dabil, eta Edurnek ez dauko zeregin aundirik etxean... (Ixildu, ta albora begira jarten da. Sabintxu amagana doa ta beronen ondoan jesarten da).

JOSE

(Emazteari maitekiro begiratuaz): Aurrera, Anton, aurrera! Asi naz zeozer ulertzen...

ANTON

Edurnek beti esaten dau, emen ez dala iñoz ezertxu bere jazoten. Orregaitik nik ipuin ori asmau badot, onetarakoxe baiño ez da izan: Edurnek, egun batzuetarako beintzat, zerbait interesgarria izan dagian: zeri ekin eta zer erabili buruan...

JOSE

Eskerrik asko, Anton. Zu lango adiskiderik! Ganera, ni baiño gizon zuurragoa zara... (Apurtxu baten ixilik gelditzen da, zerbait asmetan; gero, barrezka): Ara: biar Bilbora joango gara danok, eta beribiltxu polit bat erosiko dogu. Olan Edurnek, berak gura dauan guztian, urten aal izango dau etxetik, uriko lagunak-eta ikusten.

EDURNE

(Pozez beterik): Milla esker, Jose! Maitagarria zara, benetan. Egia esan, auxe da gaur nire etxea; baiña aurrerantzean geiago maiteko dok, noizik beifñean emendik urira urten aal badot... Orain, orduan, ertzaifñei deitu bearko deutsegu; bestela, ez da emen iñor oera joango, gau onetan.

JOSE

(Urrutizkiñez): Ertzaifñakaz, mesedez... Polizia da? Emen, Aranatar Jose. Gizon bat atrapau dogu, neure zaldi bat ostuten... Emen daukagu, ondo lotuta. Etorri zaitzeze, mesedez, eta eroan eizue zeuekaz... Zer esan dozu? «Basozabal»? Bai. Ondo aditu dot: antxe itxarongo deusuegu... (Itxi telefonoa bere lekuan, eta lagunakana dator): Gaur arratsaldean, «Basozabal»-en, mutikoren batzuk beribil bat aurkitu ei dabe, guztiz apurtuta, ta beribilaren barruan gizon bat, ilda... Ara joan ei da orain polizi-beribila, ta geroago etorriko ei dira gugana... (Antoni): Entzun, Anton. Asko lagun-du deuskuzu zuk, «Etxezuri» salbaten; baiña, ez, arren, olango ipuin ikaragarririk barriro asmau. Gero egiazkoak izaten dira olango ipuinak!

O I A L A

## ZORI ONEKO LAPURRA

(Antzerkitxu onen aria, Victor Hugo-ren «Zoribakoak» elebarritik atara da).

---

### ANTZEZLARIAK (Lagunak):

- GOTZAINA, Pierre izenekoa.
  - JEAN VALJEAN, espetetik iges egindako gizona.
  - PERSOME, Gotzainaren arrebea.
  - MARIE, etxeko neskamea (amabost urtekoa).
  - ERTZAIN-BURUA.
  - Beste ERTZAIN bi edo iru...
- 

Aroa: 1.800-garren urte inguruan.

Lekua: Frantzia, Paris-tik 50 kilometrora.

Gotzainaren etxeko eskaratzean; etxe txikia, apaindura gitxikoa.

---

### 1.—GO AGERRALDIA

(MARIE eskaratzeko zeregiñetan dabil. PERSOME, mai-zapia ipinten).

PERSOME            Marie, oindiño ez al dago gertu afaria?  
MARIE              Ez, oindiño ez, andrea.

PERSOME Egon bear leuke, ba. Ez dozu suaren ardurarik izan, neskato!

MARIE Baiña, andrea; zuk zeuk egin dozu gaur sua!

PERSOME Ez, gero, niri olango erantzunik! Lotsa geiago bear dozu...

MARIE Bai, andrea.

PERSOME Nora joan ete da nire nebea? Amaikak jota dagoz, eta ez da agiri! Marie!

MARIE Bai, andrea.

PERSOME Gotzain jaunak itxi al dau mandaturik niretzat?

MARIE Ez, andrea.

PERSOME Esan al deutsu nora joian?

MARIE Bai, andrea.

PERSOME «Bai, andrea!»... Orduan, zergaitik ez deustazu ezer esan?

MARIE Etxekandreak itandu ez deustalako...

PERSOME Ori al da errazoia, ezer ez esateko?

MARIE Andrea, zeuk esan deustazu gaur goizean, berba larregi egiten dodala; ta nik uste neban...

PERSOME Aa! Zuk uste zenduan...! Alper-alperrik da zugaz!

MARIE Bai, andrea.

PERSOME Ez zaitetz ibili beti «bai, andrea» ta «bai, andrea» esaten, lela ori!

MARIE Ez, andrea.

PERSOME Ta, nora doala esan dau?

MARIE Neure amaren etxera, andrea.

PERSOME Oo! Zure amaren etxera. Zetara?

MARIE Zelan dabillen itandu deust; eta nik, ez dala ondo aurkitzen esan deust.

PERSOME Ez dala ondo aurkitzen esan deustazu, ezta? Ta, jakifia; orain nire nebea etxetik kanpora, afaldu barik, zure ama «ez dala ondo aurkitzen» esan deustazulako.

MARIE (Surtan dagoan lapikoari begira): Etxekandre, lapikoa irakiten dago.

PERSOME Ba, orduan, atara eizu sutatik, lela orrek, ta ixildu zaitetz. (Marie sutondora doa, lapikoa sutatik kentzera). Olan ez! Itxi neuri! Ipini eizu maian zidarrezko gatz-ontzia.

MARIE Zidarrezkoa, andrea?

PERSOME Bai, zidarrezkoa! Ez dozu ondo entzuten, ala?

MARIE Saldu egin da, andrea.

PERSOME Saldu egin dala? Saldu? Zoratuta zagoz?... Nork saldu dau? Zergaitik saldu dau?

MARIE Gaur arratsaldean izan da, zu kanpoan zifian artean. Gervais jaunak sarritan esaten eban, oso polita zala gatz-ontzi ori. Ta gaur Gotzain jaunak, aren etxera eroateko agindu deust, ta ainbat ondoen saltzeko.

PERSOME Zuk ez zenduan olakorik egin bear, neuri itandu barik.

MARIE Baiña, andrea, Gotzain jaunak agindu deust eta...

PERSOME Gotzain jauna... zer bat da... Baiña, zetarako nai eban diru ori?

MARIE Ama Gringoire-entzat zala uste dot, andrea.

PERSOME Ama Gringoire! Ama Gringoire! A, bai; menditxu orretan bizi da atso zaar motz ori; berak beti esaten dauanez, oetik jagiteko makalegi ei dago! Jazoten dana da, jagiteko baiño alperrago dala sorgin ori, lanik ez egitearren. Ta ama Gringoire-k, zetarako bear eban, ba, diru ori?

MARIE Etxe-saria (errentea) ordaintzeko, andrea. Etxe-jaubeak, ez ebalá geiago itxarongo esan ei eutson; gaur bertan botako ebalá etxetik, ordaintzen ez baeutson. Alan dala, Jean mutikoa bialdu eban arek Gotzainagana, laguntza eske, eta...

PERSOME Oo! Galdua dogu diru ori, galdua! Atso orrek ez deusku ezer biurtuko. Saldu zituan soloak; jan eban, aurreratuta eukan diru guztia; etxeko tresnak, dana!... Nik diru apur bat baiño ez daukat; eta bera, jateko bear dogu... Ta orain,



- nire gatz-ontzia! Nire gatz-ontzi polita! (*Negarrez*).  
Ai! Au larregi da! Larregi da!
- MARIE Parkatu, andrea. Nik jakin izan baneeu...
- PERSOME Parkatu?... Zergaitik parkatu?... Gotzain jaunak bere gatz-ontzia saldu nai badau, zergaitik ez dau salduko, ba?... Zoaz, eta garbitu eizuz eskuok, loi-loi daukazuz eta.
- MARIE Bai, andrea. (*Marie C. atetik doa kanpora, ta Gotzaiña sartzen da, B. atetik*).

## 2.—GARREN AGERRALDIA

- GOTZAINA Oo! Emen bai ondo, epel-epeletan! Otz onegaz urteteak, izaten dau gero bere atsegia bere, etxe epelean sartzean... (*Persome-k lagunduko deutso txartesa kentzen*). Eskerrik asko, maite. (*Arrebeari begira*). Zer, Persome? Zer jazo da? Zuk negar egin dozu! Naigaberen bat emon deutsu Mariek, ala?
- PERSOME Ez, ez da Marie izan, zera baiño...
- GOTZAINA Tira! Gero esango deustazu. (*Marieri dei egiñaz*). Marie, neskato! (*Ba dator Marie*). Marie, zoaz arin zure etxera. Zuen ama obeto dago. Otoitz egin dot beragaz batera, eta osagilleak bere ikusi dau. Zoaz arin etxera. (*Marie k jakea jazten dau*). Ta etxean sartzean, atea ixil-ixilik idigi, zuen ama lo egongo da ta...
- MARIE Eskerrik asko, jauna! Eskerrik asko! (*Aterantza doa*).
- GOTZAINA Erdu ona, Marie. Artu eizu jantzi lodi au; ipini eizu lepo gaiñean. Otz andia egiten dau gau onetan.
- MARIE (*Samurtuta*): Oo! jauna, eskerrik asko!
- PERSOME Ori da lelokeria, Pierre! Neskatoa gaztea da. Otzak ez deutso kalterik egingo.
- GOTZAINA Ai, Persome; zu ez zara kanpoan ibili. Ez dakizu ondo zelako gau otza dagoan. Marie! Erdu ona;

- neuk ipiniko deutsut. (*Ipinten deutso*). Ederto! Orain, zoaz arin, txiki. (*Marie kanpora doa, B. atetik*).
- PERSOME Pierre, ez neuke zugaz asarretu gura, baiña... Jesarri zaitetz eta afaldu eizu. Ta afaria gaur ona ezpado, zeure erruz izango da, luzaro egon da-ta itxaroten.
- GOTZAINA Usaintxu gozoa dauka, beintzat.
- PERSOME Ziur nago, Marieren ama ez dana ain geisorik egongo; zuk ez zeunkan zetan etxetik urten, gaurkoa lango gau baten. Nire ustez, olakoak euren burua geiso egiten dabe, Gotzaina eurak ikustera joan daiten. Emoten deutsuezan nekeak eta, ez dabez ikusten, ez.
- GOTZAINA Eskertzekoa da, olakoak ni ikusi gura izatea.
- PERSOME Ondo dago. Baiña, nire ustez, maitasunak etxetik asi bear dau.
- GOTZAINA Ta orrexegaitik egin dozu afari gozo au nireztat. Oso ona zara nireztat, arrea.
- PERSOME «Ona zureztat». Bai, ba naz! Ni barik, neuk zaindu ezik, zu zer izango zifiake? Munduko alper guztien eta atso zaar guzurti guztien morroitxu bat baiño ez.
- GOTZAINA Alperrak eta guzurtiak badira, eurak dira zori txarrekoak, ez ni.
- PERSOME Baiña ori zorakeria bat da. Laster ez dozu ezer bere eukiko. Dana emoten dozu, dan-dana...
- GOTZAINA Ara, Persome; mundu onetan ainbeste gose ta naigabe dago, ta nik aal dodana ain gitxi da, ain gitxi!...
- PERSOME Naigabeak, bai; baiña zuk ez dozu ikusten, zeu geien maite zaituanari emoten deutzazun naigabea, neuri emoten deustazun atsekabea...
- GOTZAINA (*Zutundurik*): Zuri, laztana? Min emon deutsut? Ai! Bai... Oraintxe gogoratzen naz: zu negarrez egon zara... Neu nintzan errudun? Ez neban nai, zuri naigaberik emoterik. Parkatu!
- PERSOME «Parkatu», bai; baiña parkatuta ez dira zuzentzen okerrak... Tira! Asi zaitetz jaten, afaria otzitu orduko.

- GOTZAINA Bai, maite. (*Jesarten da*). Baiña esan eidazu...
- PERSOME Zu ume bat lez zara. Neuk egon bear beti gaiñean! Ta, gaiñean ezpanago, zidarrezko gatzontzia bere saltzeko agintzen deutzazu Marieri.
- GOTZAINA Aa! Bai, gatz-ontzia. Parkatu! Ainbeste maite zenduan, ala?
- PERSOME «Ainbeste maite!» Bai orixe! Urte askotan egon da gurean...
- GOTZAINA Bai, olantxe da. Parkatu. Ederra zan, bai. Baiña, maite, gatza arrizko ontzitxu baten bere gorde leiteke...
- PERSOME Jakiña; ta okelea lurreean jan bere bai! Orraino eldu bear! Gringoire atso zaar sorgin ori! Arrituta nago, zelan bialdu ez dauan barriro Jean mutikoa.
- GOTZAINA Ba nik..., egun bat edo birako geurera etorteko esan neutson; baiña berak uste dau, zuk ez dozula ori nai izango...
- PERSOME Ez dodala ori nai izango!
- GOTZAINA Eta etxe-jaubea gizon ona da, izan; baiña ezin eban geiago itxaron, etxe-saria jaso barik. Ta, orregaitik... ulertuko dozu... Neuk ordaindu bear izan deutsot.
- PERSOME Zeuk ordaindu bear? A, bai!
- GOTZAINA Bai, ba; ta nik ez neukan dirurik. Orregaitik, gatzontzia saldu bear izan neban. (*Irribarrez*). Baiña parkatu, min emon badeutsut...
- PERSOME Aurrera! Aurrera!... Alper-alperrik da zuri ezer esatea. Laster, zeure argimutillok bere saldu egingo dozuz zuk!
- GOTZAINA (*Ben-ben*): Ez, maite, ez; nire argimutillik ez!
- PERSOME Ta, zergaitik ez? Bear bada, euron diruaz beste atso zaarren baten etxe-saria ordainduko zeunke.
- GOTZAINA Ai, Persome. Zure asmoak oso onak dira, baiña argimutillok ez ditut saldu gura. Ba dakizu: geure amatxo maiteak emon eustazan bere eriotz-orduan, zu jaio ta laster. Ondo gordeteko eskatu eustan, bere gomutagarritzat... Bear bada, ez dago

- ondo, guk argimutillok orrenbeste maite izatea. Zer uste dozu?
- PERSOME Pierre! Pierre! Ez eizu geiagorik esan, biotza apurtu bear deustazu ta... Ba noa oera.
- GOTZAINA (*Bigun-bigun*): Jaungoikoak gorde zaizala, gau onetan eta beti! (*Persome-k arasako atea itxi egiten dau*).
- PERSOME Ez zaitetz luzaro egon irakurten, begiak nekatu arte.
- GOTZAINA Ez, maite. Gabon! (*Persome bere gelara doa, C. atetik*).

### 3.—GARREN AGERRALDIA

- GOTZAINA (*Mai aurrean jesarri ta liburu bat idigiten dau. Gero, argimutillei begira geratzen da*): Bai, onein diruaz beartsuren baten etxe-saria ordaindu leiteke. Ondo egin dau ori esatea... (*Egur apur bat botaten deuto suari; argiontzia ixiotu, liburu ta paper batzuk atondu, ta barriro jesarten da. Amabiak dira. Irakurten asten da. Une onetan, ixil-ixilik, Jean Valjean sartzen da, espetxetik iges eginda dabillen gizon bat. Aizto andi bat dakar eskuan. Gotzainari oratuten deuto, atzekaldetik*).
- VALJEAN Deadarrik egiten badozu, gizon illa zara!
- GOTZAINA Baiña, ene adiskidea, ikusten dozunez, ni irakurten nago. Zergaitik deadar egin? Zetarako bear dozu nire laguntasuna?
- VALJEAN Nik jan egin gura dot. Iru egunean nago ezer jan barik. Ekazu zeezer jateko... arin, baiña... arin... Entzun dozu?
- GOTZAINA Bai, seme; izango dozu zer jan. Oraintxe eskatuko deutzazu nire arrebeari arasako giltzak. (*Zutundu egiten da*).
- VALJEAN Jesarri zaitetz! Geldi or, lagun!... Zuk arrebeari deituko deutzazu giltzak ekarteko, e? Ta morroiak bere itzartuko dozuz! Tira, nun dago janaria? Nik ez dot giltzik bear. Arin! Esaidazu nun dagoan janari ori.



- GOTZAINA (*Bere buruagaz berbetan*): Persome-k ez eban itxi bear arasea. (*Gizonari*). Ara, anaia ori, ez izan emen ezeren bildurrik. Etxe onetan, neure arrebea ta neu baiño ez gara bizi.
- VALJEAN Ta zelan dakit nik ori?
- GOTZAINA Zelan? Neuk diñotsudalako. (*Valjean Gotzainari begi-begira, luzaro*).
- VALJEAN Uuum! Baiña arriskuan sartuko naz. (*Gotzaina A. aterantz doa*). Zu, entzun ondo: guzurra badiñozu, aitzo au biotz-biotzean sartuko deutsut. Nik ez daukot zer galdurik.
- GOTZAINA Ezetz? Bai, seme; zeure arimea galdu zeinke; ta zure arimeak nire biotzak baiño geiago balio dau. (*C. ate ondotik*). Persome! Persome! (*Valjean zutunik dago, Gotzainaren atzean, aitzoa eskuan dauala*).

#### 4.—GARREN AGERRALDIA

- PERSOME (*Barrutik*): Zer jazoten da?
- GOTZAINA Bidazti bat dago emen, eta gizajoa gose da. Zatoz ona ta idigi eizu arasako atea, ta afari apur bat emongo deusat.
- PERSOME Zer? Gabeko orduotan? Bidez doan edozein ganorabakoren deiari erantzuteko ordua da au, ala lotan egoteko ordua?
- GOTZAINA Baiña, Persome, bidazia gose da ta...
- PERSOME Tiiira ba, oraintxe noa. (*Sartzen da Persome. Gizonaren eskuetan aitzoa ikustean, ikaratu egiten da*). Pierre! Zer egiten dau gizon onek aitzo orregaz?
- GOTZAINA Aitzoa?... Aa... bai...; guk geure aitzoak saldu egin doguzala uste izango eban eta... (*Barre egiten dau, arrebea nasaitzeko*).
- PERSOME Pierre! Dardara baten nago. Piztia basati baten antzera begiratzen deust.
- VALJEAN Ibili zaitex bizkor! Ekarrri niri janaria ta edaria; bestela, biok garbituko zaituet... ta, orduan, neuk artuko dot janaria.

- GOTZAINA Persome, ekazuz giltzak. (*Emoten deutsoz*). Eta orain, maite, zoaz barriri lotara. (*Persome aterantz doa. Gizona, salto batez, bere aurrean jarten da*).
- VALJEAN Geldi! Ni emen nagoan artean, ementxe egon bear dozeu biok. (*Arrebea Gotzainari begi-begira*).
- GOTZAINA Persome, jaun oni poz emoteko, jesarri zaitex maian. (*Arrebea mai-ondoan jesarten da, gizon biei begi-begira*). Ba dogu emen okela otz apur bat, ardao pizkat, eta ogia...
- VALJEAN Ipini eizuz mai-gaiñean ta egon zaitex zutunik, mai-aurrean, neuk ikusteko lekuan. (*Gotzainak beteten dau agindua. Gero, arasea idigi, eta aitzoa ta sardea ataraten ditu. Aitzoa, gizonak eskuan daukanaren antzekoa da*).
- VALJEAN Au baiño zorrotzagoa da nire aitzoa! (*Atzamarra sorbatzean erabilten dau, zorrotza dan ala ez ikusteko; gero, neba-arrebei begira*). Sardea! (*Eskuan artzen dau*). Ez da zidarrezkoa, burdiñazkoa da. (*Bota egiten dau*). Guk, espetxean, ez dogu sardarik erabilten.
- PERSOME Espetxean? (*Valjean-ek okela zati aundi bat ebagiten dau; gero, aginakin, piztia bat lez tiraka asten da. Babatean, ingurura begiratzen dau*).
- VALJEAN Zer da ori? Zer dala-ta daukazu leioa idigita ta atea itxi barik, edozein sartzeko moduan?
- GOTZAINA Ba, orrexegaitik dagoz idigita: edozein sartu daiten... (*Valjean-ek atea ta leioa itxi egiten ditu*).
- VALJEAN Ederto. Orain itxita dagoz.
- GOTZAINA (*Triste*): Leenengo aldiz, ogeta amar urteotan! (*Valjean-ek gogotsu jaten dau, ta azur bat lurrera bota dau*).
- PERSOME Ai! Nire gela garbi txukuna! (*Gotzainak azurra jaso ta mai-gaiñean izten dau*).
- VALJEAN (*Gotzainari*). Ez daukazu zuk lapurren bildurrik?
- GOTZAINA Euren erruki naz.
- VALJEAN «Euren erruki»? Ja, ja, ja. (*Ardaa zurrut edaten dau*). Barregarri da: «euren erruki!» Ja, ja, ja... (*Barriri edaten dau*). (*Babatean*). Zu, nor zara?
- GOTZAINA Ni Gotzaina naz.



- VALJEAN Ja, ja, ja. Gotzaina! Auxe da ederra! Gotzaina!  
 GOTZAINA Persome, itzi gaizuz bakarrik. Jaun onek parka-  
 tuko deutsu. Ziur nago.  
 PERSOME Zu onegaz itzi?  
 GOTZAINA Bai, mesedez. Nire adiskideak eta biok nasaia-  
 gero berba egin bear dogu. (Valjean-ek barriro edaten  
 dau).
- VALJEAN. Zer diñozu? Gu itzi?... Bai, bai, itzi gaizuz. Gabon!  
 Gotzainagaz berba egin gura dot. Gotzaina! Ja, ja.  
 (Barre egin eta barriro edaten dau).
- GOTZAINA Gabon, Persome. Biar arte! Ondo lo egin! (Persome  
 C. atetik doa kanpora).

#### BOSGARREN AGERRALDIA

- VALJEAN (Oraindino barreka): Gotzaina! Ja, ja...! Ondo dago.  
 Ba ni... (Bapatean, deadarka). Ba dakizu ni nor nazan?  
 GOTZAINA Uste dot, naigabe ta ordu larri asko ikusitako  
 gizon bat zareala.
- VALJEAN Ordu larriak? Naigabeak? (Ez dau ulertuten). Aa!  
 Bai, bai. (Edaten dau). Baiña ori antxina izan zan.  
 Ja, ja! Orduan ni gizon bat nintzan; orain, ni enaz  
 gizona; zenbaki bat naz, numero bat: 15.729-  
 garrena. Eta, joandako 10 urteotan, «infernuan»  
 bizi izan naz.
- GOTZAINA Esaidazu zelangoa dan ori, «infernu» ori.  
 VALJEAN Zetarako? Ertzainei deitzea nai dozu, ala..., ni  
 euren eskuetan izteko?
- GOTZAINA Ez-! Nik ez deutset ertzaiñei deituko.  
 VALJEAN (Arrutirik begiratuaz): Sinisten deusut... (Burua es-  
 tutzen dau), baiña... ez dakit zergaitik...
- GOTZAINA (Valjean-en besoan bere eskua ipiniaz): Esaidazu zer  
 egiten zenduan, «infernuan» sartu aurretik.
- VALJEAN Ainbeste urte dira ta, ia aaztu egin jat!... Etxetxu  
 polit bat neukan. Ormetan lorak eukazan...  
 (Amesetan balego lez). Areik bai lora politikak, arratsal-

deko eguzkitan!... Andra bat bere ba zan etxetxu  
 aretan. Zera zan... (sakon ausnartuaz) neure emaztea  
 zala uste dot... bai. (Bapatean, arin itz egiñaz). Bai,  
 gogoratzen naz: geisorik egoan bera. Ez geunkan  
 zer janik. Nik ezin neban lanik lortu; urte txarra  
 zan. Ta nire emaztea, Jeanette nirea, geisorik  
 egoan, il-zorian... Orduan, lapurretan egin neban,  
 neure emaztearentzat janari apur bat erosteko.  
 (Ixil-une luzea, Gotzainak eskua artzen deutsu). Atrapau  
 egin ninduen. Parkatzeko ta parkatzeko eskatu  
 neutsen nik. Esan neutsen zergaitik ostu neban,  
 baiña eurak barre egin eusten. Epailleak, ni 10  
 urterako espetxean sartzeko agindu eban!... Amar  
 urte «infernuan»! Eta, espetxeko leenengo gabean,  
 zera esan eusten: il zala Jeanette! Jaungoikoak  
 zigortuko al ditu! Zigortuko al ditu dan-danak!...  
 (Arpegia esku artean gordeko dau).

- GOTZAINA Orain, esaidazu zelangoa zan espetxea, «infernu»  
 ori.
- VALJEAN Ori esan?... Ara, ni aldi baten gizona nintzan.  
 Orain, piztia bat naz; ta piztia banaz, eurak  
 egin nabe ni piztia. Piztia basati bat lez lotu  
 ninduen. Txakur bat lez jo ninduen. Gorputza,  
 zikina dariola euki dot, zorritz josita. Ol-gaiñean  
 lo egin dot. Eta amar urtean ori, amar urtean!  
 Ene Jaungoikoa! Neure izena kendu egin eusten,  
 arimea bere ostu; ta gorroto baltzez bete nire  
 biotza. Baiña, egun baten, aaztu egin jaken piztia  
 oni kateak ezartea, ta orduan nik iges egin neban.  
 Libre nintzan! Sei aste dira, au jazo zala. Libre  
 nintzan... libre ilteko!
- GOTZAINA Ilteko?
- VALJEAN Bai. Jatoko, il egin bear! An «infernuan» janari  
 apur bat lortuten dozu; baiña, iges egitean, ezer  
 bere ez... Neure billa ebiltzan alde guztietatik.  
 Nik ez neukan ez paperik, ez izenik, ez ezer.  
 Alan ba, ostu egin neban barriro bere: jantzi  
 onek ostu nituan (nebazan); eguneroko janaria  
 bere, ostu egin bear. Lo, barriz, basoetan, tx-  
 boletan, edozein lekutan. Ezin nintzan iflora  
 joan lan billa. Urietan bere ezin sartu eskean.  
 Orregaitik, ez neukan beste biderik eta, lapu-

rretan egin bear. Eurak egin nabe ni lapur! (*Ardabotellea utsitu ta surtara jaurtiten dau*).

GOTZAINA Ene semea, zuk gorriak ikusi dozuz, bai. Baiña guztiontzat dago itxaropena.

VALJEAN Itxaropena? Itxaropena? Ja, ja, ja! (*Barre egiten dau, basati batek lez*).

GOTZAINA Asko ibili zara ta nekatuta zagoz. Etzun zaitetz eta lo eizu ementxe. Neuk ekarriko deutsudaz estalki batzuk.

VALJEAN Eta iñor badator?

GOTZAINA Ez da iñor etorriko. Eta, etorten bada bere, zu ez zara nire laguna, ala?

VALJEAN Zure laguna?

GOTZAINA Gotzainaren lagunari ez deutso iñok kalterik egingo.

VALJEAN Gotzainaren laguna! (*Burua estutuz; ezin dau ondo ulertu*).

GOTZAINA Ba noa estalki billa. (*A. atetik urteten dau*).

---

### SEIGARRREN AGERRALDIA

VALJEAN (*Zutundu, ta barriri ixten ditu leioa ta atea*): **Gotzainaren laguna!** (*Sutondora urreratzen da, berotzeko; argimutilliei begira jarten da; gero, ingurura begira, bakarrik dagoan ala ez ikusteko. Azkenez, eskuetan artu ta zelako aztuntosuna dauken ikusten dau*). **Zidarrezkoak!... Ta aztunak, gaiñera!** Diru pillo ederra balioko dabe, ba... (*Gotzainaren pauso-otsak entzuten ditu, ta leengo lekuan izten dauz; baiña bat mai-gaiñera jausten da*).

---

### ZAZPIGARREN AGERRALDIA

GOTZAINA (*Barrura sartzean, ikusten dau Valjean zetan dabillen, ta jesar-lekura doa estalkiakaz*). **Zer? Nire argi-mutilliei begira zagoz? Ni arro nago euron jaube izateaz.**

Neure amak emon eustazan... Bear bada, ederregiak dira etxetxu onetarako; baiña, eurok dira nire amaren gomutagarri bakararra... Gertu dago zure oea. Etzungo zara, ezta?

VALJEAN Bai, etzungo naz. Baiña, esaidazu; zergaitik zara zu ain ona nigaz? Zer lortu gura dozu? E?

GOTZAINA Gura dodana, auxe baiño ez da: Nire adiskideak lo on bat egitea.

VALJEAN Nik uste dot, zuk ni eliz-gizon egin nai nozula: «arimea salbau» nai dozula. Ezta, ba, olan esaten?... Ba, ara: alperrik zabiltz. Nik ez dot «salbaterik» nai... Eta Eliza? Bah!... Elizari gorrotoa deusat.

GOTZAINA Min andia artzen dot, ori entzutean, seme. Elizak zuri ez deustu gorrotorik.

VALJEAN Orduan, zuk nire arimea «salbau» nai dozu. Ja, ja...! Asmo ona da ori. Ja, ja, ja! Ez, ez, Gotzain maite ori. Nik ez dot nai «maitetasunik», ez «itxaropenik», ez beste olango barriketarik.

GOTZAIN Ez dozu etzun nai? Berandu da.

VALJEAN Bai. Ondo dago. Baiña ni enaz «salbauko»... Ni, ni... (*Etzuten da*). Ziur zagoz, gero, ez dala iñor etorriko?

GOTZAINA Ez dot uste iñor etorriko danik. Dana dala, atea ondo itxi dozu, bada-ezpadan bere...

VALJEAN **Uum! Ondo itxita ete dago, gero?** (*Atera joan eta bultza egiten deutso, itxita dagoan ala ez ikusteko. Gero, biurtu egiten da. Gotzainak eskuetan daukaz estalkiak. Valjean aserre dago*). **Zoaz oera! Ni neu estalduko naz.** (*Gotzainak itxaron egiten dau*). **Joateko diño-tsut!**

GOTZAINA **Gabon, seme.** (*Gotzaina ba doa, A. atetik*).

---

### ZORTZIGARRREN AGERRALDIA

VALJEAN (*Gotzaina joan arte itxaron egiten dau. Gero, Gotzainaren gelako atea idigi nai dau*). **Ez dago ondo itxita, jakiña!**



(Alde guztietara begi-begira, argi-mutillak ikusten ditu). Barrero ikusi bear dodaz. (Eskuetan artzen dauz). Diru asko balioko dabe, ziur naz. Diru-ordez emoten baditut, aukera ederra izango dot, barrero neure bizimodua asteko. Uum! Agure orrek asko maite ditu; bere amak emon eutsozala esan dau. Bere amak, bai. Areik ez ziran nire amaz gogoratu, ni «infernura» bota ninduenean. Gizon au oso ona da nigaz... Baiña, zetarako da, ba, Gotzain bat, jendeagaz ona agertzeko baiño? Zer! Biguntzen asi naz... Ene Jaungoikoa! A zelango barreak egingo leukeezan espetzeko nire lagunak, 15.729-garrena onan ikusiko balebe: gauza bat ostuteko dudaz beterik, biotza bigundu egin jakola ta! Biotza bigundu! Ja, ja! Nork esango eban! Ja, ja! 15.729-garrena biotza biguntzen asita. Onango barregarririk! Ja, ja!... Ez; artu argi-mutillak eta ba noa. Emen gelditzen banaz, goizean barriketetan asiko jat agure ori ta bigundu egingo nau. Infernura bera ta bere barriketak! (Artu argi-mutillak, gorde jakepean, eta ariñeketan urteten dau B. atetik. Valjean-ek urteteaz batera, aizeak atea idigi egiten dau, zarata aundiaz).

### BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

PERSOME

(Etxe barrutik): Nor dabil or?... Nor dabil or? Gaur gabean ezingo dot lorik egin! Nor dabil or? (C. atetik sartzen da). Atea ixten entzun dot, ziur nago. (Alde guztietara begira). Ez dago emen iñor? (Gotzainaren atean deitzen dau; orduantxe konturatzen da, argi-mutillak falta dirala). Argi-mutillak! Argi-mutillak! Ez dagoz emen... Pierre, Pierre! Urten! Urten! Lapurrak!...

### AMARGARREN AGERRALDIA

GOTZAINA

(A. atetik sartzen da). Zer jazoten da, laztana? Zer jazoten da?

PERSOME

Iges egin dau. Gizon gosekil orrek iges egin dau, ta zure argi-mutillak beragaz eroan ditu.

GOTZAINA

Nire argi-mutillak ez, Persome. Ez da ori egia izango. (Begi-begira). Gogorra da au, oso gogorra. Orreik ez ebazan eroan bear. Eurok ziran nire aberastasun guztia. (Oso naigabeturik, ia negarrez).

PERSOME

Tira, zoaz ta deitu ertzañiei. Gizon ori ez zan urrun joango. Laster atrapauko dabe ta ekarriko deusuez zure argi-mutillak. Leloa be leloa izan ziñan, argi-mutillak emen iztean, —ganera olango gizon bat etxean egoala.

GOTZAINA

Egia diñozu, Persome. Neurea da erru guztia. Ez nebazan emen itzi bear.

PERSOME

Ori da lelokeria diñozuna. Zeurea errua! Gizon ori lapur bat zan, lapur utsa. Ikusi orduko igarri neutsan nik orreri. Zoaz ta deitu ertzañiei; bestela, neuk deituko deutset. (Aterantz doa, baiña Gotzainak ez deutso izten).

GOTZAINA

Eta... barrero bota gizon ori espetxera?... (Bigun-bigun). Barrero bialdu «infernura»? Ez, Persome. Zigor zuzena izan da au niretzat. Nik larregi maite nituan (nebazan) argi-mutillak. Eta ori ez egoan ondo. Nire zigor au ondo irabazita daukat, bai. Baiña, Jauna, gogorra da. Oso gogorra. (Arpegia esku artean gordeko dau).

PERSOME

Ez, Pierre, oker zagoz. Ertzañiei zeuk deitzen ezpadeutsezu, neuk deituko deutset. Ez dot emen egon gura, dan-dana ostuten deusuela ikusten. Ba dakit nire nebea ta nire Gotzaina zareana, ta Frantziako gizonik andiena; baiña kokolo bat zara, ume bat. Neu joango naz ertzañiei deitzera.

GOTZAINA

Geldi, Persome! Argi-mutillak neureak ziran; baiña orain bereak dira. Oba da orretara. Berak nik baiño geiago bear ditu. Gure ama emen egon balitz, beste orrenbeste (bardin) egingo eban...

PERSOME

Baiña... (Ate-joka aundiak entzuten dira).

ERTZAIN-BURU

(Kanpotik): Jauna, gauza bat daukagu emen zuretzako. Sartu geintez?

GOTZAINA

Bai, aurrera, seme.



## AMAIKAGARREN AGERRALDIA

(Ertzain-buru bat sartzen da, beste iru ertzaiñegaz. Valjean dakarre erdian, eskuak lotuta. Ertzain-buruak argi-mutillak dakaz eskuetan).

- PERSOME      **A! Jausi az, e, lapur ori? Jausi az, e?**
- ERTZAINA      **Bai, andrea. Gugandik alde egin gurean ikusi dogu. Bere agiririk ez dau erakutsi nai izan, nor dan esaterik bere ez; au dala ta, lotu egin dogu. A! Baiña gizon au gogor dago. Ez jaku, ba, burrukan asi! Eta burrukan genbiltzala, argi-mutillok jausi jakoz. (Persome-k argi-mutillak artu ta mai-gaiñean ipinten ditu, zapi bategaz garbituaz). Ni zure argi-mutillak gomutau naz eta onaxe ekarri dodaz. Esaidazu: zeureak dira, ezta?... Orduan, giltzapean sartuko dogu au. (Gotzaina ta Valjean alkarrereri begi-begira. Valjean-en begiak aserre bizian agiri dira, ta bildur barik).**
- GOTZAINA      **Baiña... baiña nik ez dot ezer ulertuten. Jaun au neure adiskide on bat da.**
- ERTZAINA      **(Arrituta): Zure adiskidea? Tira, tira!**
- GOTZAINA      **Bai, neure adiskidea. Poz aundi bat emon deust bart: neugaz afaldu nai izan dau, ta nik... argi-mutillok emon deustodaz. (Argi ikusten da, ertzain-buruak ez deustala sinisten).**
- ERTZAINA      **Zeuk emon oneri zeure argi-mutillok? Zeuk emon oneri?**
- GOTZAINA      **Bai.**
- ERTZAINA      **Zeuk emon oneri!**
- GOTZAINA      **Ta, orain, uste dot askatuko dozuela gizon au.**
- ERTZAINA      **Baiña onek ez deusku erakutsi nai bere agiririk; ez deusku esan gura, bera nor dan.**
- GOTZAINA      **Esan deustut, ba, neure adiskide bat dala.**
- ERTZAINA      **Bai, bear bada olan izango da, baiña...**
- GOTZAINA      **(Gogor): Au, zeuen Gotzainaren adiskide bat da. Naikoa da ori jakitea.**
- ERTZAINA      **Bai, baiña...**

- GOTZAINA      **Baiña, zer? (Ertzaiña ta Gotzaiña alkarrereri begira, ixilik).**
- ERTZAINA      **Ba... orduan... Uum! (Bere gizonei). Askatu gizon au!... Ta goazen! Kanpora! (Ertzainak kanpora doaz. Ixil-aldi luzea).**

## AMABIGARREN AGERRALDIA

- VALJEAN      **(Astiro-astiro, amesetan lez): Zeuk emon niri argi-mutillok! Emon!**
- PERSOME      **Oo! Lapur ori! Lapur aundi ori! Gurera etorri ta izan dozu zer jan eta zegaz berotu. Ta, gero, lapurretan egin! Lapurretan egin zeure adiskide onari! Zu...**
- GOTZAINA      **Persome, zu nekatuta zagoz. Zoaz zeure gelara ta lo eizu.**
- PERSOME      **Zeer? Ta zu emen bakarrik itzi, gizon onegaz, barriro atzipetu (engañatu) zaizan? Edo, bear bada, il! Ez, enaz joango emendik.**
- GOTZAINA      **Persome, itzi gaizuz bakarrik. (Persome begi-begira dago; gero, bere atarantza doa).**
- PERSOME      **Ondo dago; baiña, nik joan bear badot, neugaz eroango dodaz argi-mutillak.**
- GOTZAINA      **Ez, Persome. Itzi eizuz argi-mutillok mai-gaiñean, eta joan zaitez.**
- PERSOME      **Ez, enaz joango!**
- GOTZAINA      **(Gogor): Neuk, zeure Gotzainak, agintzen deustut! (Ba doa Persome, astiro-astiro, gogo barik, C. atetik).**

## AMAIRUGARREN AGERRALDIA

- VALJEAN      **(Arrituta begiratzen deutso Gotzainari): Pozik nago, jauna, ertzaiñak eurakaz eroan ez nabelako. Pozik nago, ta eskerrik asko, jauna!**
- GOTZAINA      **Orain, berton lo egin nai badozu, oea or dozu gertu.**

VALJEAN Ez! (*Argi-mutillei begira*). Ez. Ezin dot. Gaiñera, joan egin bear naz. Paris-era eldu gura dot. Paris uri aundia da, ta an ez nabe aurkituko. Gabez ibili bear dot; ulertzen dozu, ezta?

GOTZAINA Bai, ulertzen dot; gazez ibili bear dozu.

VALJEAN Nik... nik ez neban sinisten, mundu onetan gizon onik izango zanik. Bein espetxean egon ezkeru, ez da ezer sinisten. Baiña orain ba dakit: zu, beintzat, ona zara. Ta... ta... arritu egingo zara, baiña gauza bat eskatu nai deusut: egingo al dozu otoitz bat nire alde, nik emendik alde egin aurretik? Uste dot, otoitz batek asko lagunduko deustala. (*Lotsatuta dago ta burua makurtu egiten dau. Gotzaiñak, ezarri bere eskuak Valjean-en buru gaiñean, eta otoitz egiten dau. Gero, bapatean, Valjean-ek abots larriagaz*): **Gabon!** (*Aterantz doa, arin*).

GOTZAINA Itxaron, seme. Aaztuta itzi dozuz zeure gauzak. (*Argi-mutillak emoten deustoz*).

VALJEAN Zer esan nai deustazu? Emon egiten deustazuz?

GOTZAINA Bai. Artu eizuz, mesedez. Ondo etorriko jatzuz. (*Artzen ditu Valjean-ek. Guztiz arrituta dago*). Eta, seme: etxe ostean, bidetxu bat dago basorako. Bidetxu ori Paris-eraino doa. Oso baketsua izaten da beti bidetxu ori; lagun gitxi ibiltzen da ortik. Gaiñera, ertzaiñei, nire adiskide onai, ez jake atsegin izaten, gazez olango bideetatik ibiltea. Arritzekoa da, ezta?

VALJEAN (*la barbarik egin eziñik*): **Ai! Ni lelo bat naz, ume bat onan negar egiteko. Baiña zeuk sortu dozu nire biotzean... Gauza barri bat sortu dozu nire biotzean: barriro gizona nazala ta ez basoko piztia bat!** (*Atzeko atea idigita dago, ta Valjean atera-bidean gelditi*).

GOTZAINA (*Bere eskua Valjean-en lepoan jarriaz*): **Gogoan izan beti, ene seme, soin au, soin gaxo au, Jaungoiko biziaren etxea dala...**

VALJEAN (*Atetik*): **Jaungoiko biziaren etxea... Bai, gogoan izango dot.** (*Ba doa*). (*Gotzainak atea astiro-astiro itxiko dau, ta otoitzean asiko da, belauniko*).

O I A L A

I.—(ESKUTITZ GALDUA)

### IZTEGITXUA

aitatu . . . . .	mencionar	igordi . . . . .	restregar
azka . . . . .	restregando	kokot . . . . .	cogote
danbada . . . . .	golpe	oial . . . . .	telón
eskeko . . . . .	mendigo	zapi . . . . .	trapo, lienzo

II.—(LAPURRAK DATOZ)

### IZTEGITXUA

aldatu . . . . .	cambiar	ezbear . . . . .	desgracia
aldizkari . . . . .	periódico	maitekiro . . . . .	amorosamente
alperrik . . . . .	en vano	menperatu . . . . .	someter
antza . . . . .	al parecer	oial . . . . .	telón
ardura . . . . .	preocupación	oiñetako . . . . .	calzado
askatu . . . . .	soltar, librar	sugarri . . . . .	combustible
badaezpadako . . . . .	sospechoso, dudoso	txukun . . . . .	aseado
berbakera . . . . .	modo de hablar	zain ( <i>egon</i> ) . . . . .	aguardar
beribil . . . . .	coche	zalburdi . . . . .	coche (de caballos)
dirudi . . . . .	parece	zeatzago . . . . .	más detalladamente
ertzain . . . . .	policía	zirkin . . . . .	movimiento
eskegi . . . . .	colgar	zuur . . . . .	prudente, listo
eskuratu . . . . .	coger		


III.—(ZORI ONEKO LAPURRA)

### IZTEGITXUA

abots . . . . .	voz	arasa . . . . .	armario
agiri . . . . .	documento, aparecer	ardura . . . . .	cuidado, preocupación
agure . . . . .	anciano	arrisku . . . . .	peligro
alperrik . . . . .	en vano	atsekabe . . . . .	dolor
antzeko . . . . .	parecido	atzipetu . . . . .	engañar
apaindura . . . . .	ornato	astun . . . . .	pesado



aukera . . . . .	ocasión	jaurti . . . . .	arrojar
ausi . . . . .	romper	kate . . . . .	cadena
<b>basatean</b> . . . . .	de repente	<b>lapurretan egin.</b>	robar
<b>basati</b> . . . . .	salvaje	<b>leiteke</b> . . . . .	podría...
<b>belauniko</b> . . . . .	de rodillas	<b>lortu</b> . . . . .	lograr
<b>ben-ben</b> . . . . .	muy serio	<b>lotu</b> . . . . .	atar (detener)
<b>berekautan</b> . . . . .	para sí	<b>makal</b> . . . . .	débil
<b>bidazti</b> . . . . .	caminante	<b>makurtu</b> . . . . .	inclinarse(se)
<b>billatu</b> . . . . .	buscar	<b>mandatu</b> . . . . .	recado
<b>elebarri</b> . . . . .	novela	<b>naigabe</b> . . . . .	pena
<b>epaille</b> . . . . .	juez	<b>nekatu</b> . . . . .	cansar(se)
<b>erru!</b> . . . . .	¡ven!	<b>oartu</b> . . . . .	advertir
<b>erruki izan</b> . . . . .	tener compa- sión	<b>orraitino</b> . . . . .	sin embargo
<b>errudun</b> . . . . .	culpable	<b>piztia</b> . . . . .	bicho, fiera
<b>ertzain</b> . . . . .	policia	<b>samurtu</b> . . . . .	enternecer(se)
<b>espetxe</b> . . . . .	cárcel	<b>sorbatz</b> . . . . .	filo
<b>estaldu</b> . . . . .	cubrir	<b>txartes</b> . . . . .	capisayo, abrigo
<b>estalki</b> . . . . .	cubierta, manta	<b>usain</b> . . . . .	perfume
<b>ezarri</b> . . . . .	colocar	<b>utsitu</b> . . . . .	vaciar
<b>gomutagarri</b> . . . . .	recuerdo	<b>zapi</b> . . . . .	lienzo, trapo
<b>gomutau</b> . . . . .	recordar	<b>zetara?</b> . . . . .	¿a qué?
<b>gogoratu</b> . . . . .	recordar	<b>zidar</b> . . . . .	plata
<b>gogotsu</b> . . . . .	de gana	<b>zigor(tu)</b> . . . . .	castigo (casti- gar)
<b>gorroto</b> . . . . .	odio	<b>zoratu</b> . . . . .	enloquecer
<b>gotzain</b> . . . . .	obispo	<b>zoribako</b> . . . . .	desgraciado
<b>il-zorian</b> . . . . .	a punto de	<b>zorri</b> . . . . .	piojo
<b>irakin</b> . . . . .	hervir	<b>zorrotz</b> . . . . .	afilado
<b>i(ra)tzartu</b> . . . . .	despertar		
<b>ixiotu</b> . . . . .	encender		
<b>jake</b> . . . . .	chaqueta		
<b>jakiña!</b> . . . . .	¡claro!		
<b>jarri</b> . . . . .	poner		



## SAGAR ERDIA

ANTZEZLARIAK (Lagunak)

IÑAKI, mutikotxua  
MANU, mutikotxua  
AGURE ZAAR bat


(Neskatoen artean egitekotan, beste izen batzuk ipiñi leitekez: Miren, Begofia ta Atso Zaar bat...)

- IÑAKI    **Zu, Manu, begitu! Sagar bat aurkitu dot!**
- MANU    **Ene! Emoidazu neuri orren erdia. Nik neure arkatzaren (lapitzaren) erdia emongo deutsut.**
- IÑAKI    **Bai, ondo dago. Emoidazu, ba, zeure arkatzaren erdia.**
- MANU    **Emen dozu. (Manu-k bere lapitzaren erdia emoten deutoso lñaki-ri).**
- IÑAKI    **Ederto. Orain, nik sagarraren erdia emongo deutsut. (Bere sagarraren erdia emoten deutoso Manu-ri).**



- MANU (*Asarre*) E, Iñaki, zure sagar-erdi ori andiagoa da.
- IÑAKI Zer diñozu? Bardin-bardiñak dira zati biak.
- MANU Baietz? Ea, itxi niri zure zati ori, ikusteko.
- IÑAKI Zuri itxi? Ez, nik ez deutsut itxi gura.
- MANU (*Geroago ta asarreago*) Ez, e? Zu beti gaiztoa! Ez diñozu, ba, bardiñak direala biak? Ba, bardiñak badira, artu zuk nire erdi au, ta emon niri zeure erdi ori.
- IÑAKI Ez. Ez dot gura! Ez deutsut emongo!
- MANU Ezetz? Ba, emon egin bear deustazu. Bestela, jo egingo zaitut. (*Agure Zaar bat sartzen da*).
- AGUREA Baiña, mutikotxuok, zergaitik zagoze asarre?
- MANU Nik Iñakiri neure lapitzaren erdia emon deusat. Bere sagarraren erdia emon deust berak niri... Baiña, begira: bere sagar-erdi ori, nirea baiño asko andiagoa da... Iñaki mutil gaiztoa da!
- IÑAKI Nire erdi au ez da andiagoa. Ikusi. (*Agurea-ri emoten deustso bere sagar-erdia*).
- AGUREA Orain zuk bere, Manu, itxi niri zeure sagar-erdi ori, ikusteko. (*Manu-k emoten deustso Agureari bere erdia*)... Nik uste dot, zati biok bardiñak direala.
- MANU Ez, ez; Iñakiren zatia andiagoa da.
- IÑAKI Manu, zu mutil gaiztoa zara. Biok bardiñak direala diño Agureak. (*Agureari diñotso*): Jauna, emoidazu nire erdia.
- AGUREA Ara, Iñaki: zuk diñozunez, zure sagar-erdia ta Manuren erdia bardiñak dira. Ba, orduan, auxe egingo dogu: Artu zuk Manuren sagar-erdia, ta zeure erdia emongo deusat nik Manuri.
- IÑAKI Ez, ez! Emoidazu nire sagar-erdi ori!
- MANU Bai, bai! Emoidazu niri Iñakiren erdi ori!
- AGUREA Bai, nik uste dot Iñakiren sagar-erdi au anditxuagoa dala. Zaitxu bat kenduko deusat Iñakiren erdi oni. Orduan, bardin-bardiñak izango dira biak.

- MANU Bai, orduan bardiñak izango dira. (*Agureak Iñakiren sagar-erdiari zaitxu bat kentzen deustso*).
- IÑAKI Ene! Begitu! Manuren erdi ori andiagoa da orain. Manuren sagar-erdia gura dot nik.
- MANU Ez. Orain bardiñak dirak biak. Emoidazu niri neure erdi ori.
- AGUREA Ez, Manuren erdia andiagoa da. Manuren sagarrari bere, zaitxu bat kenduko deusat. (*Manu-ren sagarrari zati txiki bat kentzen deustso*). Ikusi: orain bardiñak dira.
- MANU Begitu! Iñakiren erdi ori andiago da orain. Nik Iñakiren erdi ori gura dot.
- IÑAKI Ez, ez; bardiñak dira. Emoidazu nire erdi ori.
- AGUREA Nik uste dot, Iñakiren sagar-erdi au apur bat andiagoa dala. Iñakiren erdi oni beste zaitxu bat kendu bear deusat. (*Iñaki-ren erdiari beste zaitxu bat kentzen deustso*).
- IÑAKI Baiña orain Manuren erdi ori andiagoa da.
- AGUREA Bai? Ba, Manuren erdi ori andiagoa bada, beste zati txiki bat kenduko deusat. (*Artu Manuren sagarra, ta jan egiten dau dana*).
- MANU Ene! Ene! Orain Iñakiren sagar-erdia nirea baiño andiagoa da. Emoidazu ori neuri.
- AGUREA Ara: Iñakiren erdia andiagoa bada, ori bere jan egin bearko dot. (*Artu Iñakiren sagar-erdia, ta jan egiten dau dana*). Mutikotxuok! Ikusi ta ikasi: ez iñoiz asarretu! Asarretzen direanak, ez dabe iñoiz gauza onik ataraten asarretik...



## ERRAUSKIÑE

Antzezleriak:

AITA  
AMA  
ERRAUSKIÑE  
ANA ta JOANA (Errauskiñe-ren aizta-ordeak)  
PRINTZIPEA  
MAITAGARRI bat  
Printzipearen OTSEIN bi  
Printzipearen etxean, gizon eta emakume asko

1-GO AGERRALDIA:

### ERRAUSKIÑE-NEKO GELA BATEAN

*(Errauskiñe neskatotxua zan, ama il jakonean... Orain, aita ba doa, alargun-barri bategaz ezkontzera. Alargun-barri onek alaba gazte bi ditu: Ana ta Joana. Urdiñez jantzita dago Errauskiñe. Aita sartzen da).*

AITA Errauskiñe, nik gauzatxu bat esan bear deutsut, ba, zuri...

ERRAUSKIÑE Zer, aita?  
AITA Ni gaur kanpora noa.

ERRAUSKIÑE Nora zoaz, ba, aita?

AITA Alargun-barri bategaz ezkontzera... Zu umetxua zifala il zan zure ama. Orain, neska aundia egin zara... Ara: gaurtik aurrera ama barri bat izango dozu, ta ama barri ori bere asko maite bear dozu.

ERRAUSKIÑE Bai, aita; ni poz-pozik nago, zu zorionsua izango zarealako... Ta noiz etorriko da ama barria?

AITA Iru egun barru etorriko da, neugaz batera... Alabatxu bi ditu berak bere. Neska andiak dira. Askok lagunduko deusue eurok zuri... (Errauskiñe-ri mosu egin, eta urten egiten dau Aitak).

## 2-GARREN AGERRALDIA

### LEENGO GELAN

(Errauskiñe jesarrita dago, leengo gelan bertan. Aita sartzen da. Bero-negaz datoz Ama barria ta neska biak: Ana ta Joana).

AITA Errauskiñetxu, auxe dozu, ba, zure ama barria...

AMA Askok poztuten nau zu ikusteak, Errauskiñe. Ze pozik biziko garean alkarregaz! Neska biok zeure aiztak izango dira. Ana: neskatilla au Errauskiñe da. Joana: Errauskiñe da au... Poz-pozik biziko zarie irurok alkarren ondoan. (Alkarri mosu egitez).

JOANA Erdu, Errauskiñe. Zatoz, gure jantzi barriak ikustera. (Ana, Joana ta Errauskiñe-k urten egiten dabe gelatik).

AITA Maite izango dozu zuk Errauskiñe? Lagunduko deusazu?

AMA Bai orixe!... Goazen baratza ikusten. (Ba doaz).

## 3-GARREN AGERRALDIA:

### LEENGO GELEA BERA. ILLABETE GEROAGO

(Ana ta Errauskiñe dagoz gelan, lanean...)

ANA Errauskiñe, artu nire jantzi au ta garbitu egizu...

ERRAUSKIÑE Baiña nik bazkaria gertau bear dot...

ANA Zuk jantzi au garbitu bear dozu. Ta arin, gero! Egizu neuk agintzen dodana. (Emoten deutso jantzia Errauskiñe-ri. Au kanpora doa... Joana sartzen da).

JOANA Nun dago Errauskiñe? Neure oiñetakoak garbitu bear ditu...

ANA Ez, orain neure jantzia garbitzen joan da.

JOANA Beti zeure jantziak garbitzen! Zuri larregi laguntzen deutso Errauskiñe-k... Orain neure oiñetakoak garbitu bear ditu. Oraintxe dei egingo deusatz, ona etorteko...

ANA Ez deitu, gero! Orain neure jantzia garbitu bear dau-ta...

JOANA Bai, deituko deusatz... Oraintxe deituko deusatz (Aizta biak asarre. Ama sartzen da).

AMA Baiña... zer dala-ta dira asarreok?

JOANA Errauskiñe-k larregi laguntzen deutso Ana-ri: beti dabil onen jantziak garbitzen... Orain neure oiñetakoak garbitu bear ditu.

AMA (Errauskiñe-ri dei eginda) Errauskiñe, Ana-ri bakarrik ez, Joana-ri bere lagundu bear deusazu... Ea, bizkorrago lan egin bear dozu, ez ain astiro!

ERRAUSKIÑE Baiña, ama, nik ezin dot: bear larregi daukat egiteko...

AMA Bear larregi? Neskatilla alper bat baiño ez zara zu!... Zoaz, bai, ta garbitu Joana-ren oiñetakoak bere. (Amak errauskiñe jo egiten dau. Errauskiñe negarrez. Aita sartzen da).

AITA Zergaitik dago negarrez Errauskiñetxu?



- AMA Zergaitik? Alperra dalako. Joana-ri ez deutso la-  
gundu gura, oiñetakoak garbitzen...
- ERRAUSKIÑE Aita, neuk egin bear dodaz emen lan guztiak, ala?  
Nire aitzak zer egin bear dabe, ba?
- AITA Ez, Errauskiñetxu; ez dozu olango gauzarik esan  
bear. Zure aizta barriak asko maite zaitue. Bai,  
ondo dakit nik ori... Zeuri laguntzea gura dabe  
oneik. Baiña zuk ez dozu alperra izan bear... Zoaz,  
ba, ta egin arin zeure zeregiñak. (Errauskiñe kanpora  
doa).
- AMA Nik asko maite dot Errauskiñe, baiña ume ori oso  
alperra da. Ez dau lagundu gura.
- AITA Alperra? Neuk berba egingo deusat... Gaurtik  
aurrera on-ona izango da. Ikusiko dozu. (Ba doa).

4-GARREN AGERRALDIA:  
LEENGO GELEA BERA

(Errauskiñe zutunik dago sutondoan. Ana ta Joana ate-ondoan dagoz.  
Otsein bat dator atera).

- JOANA Zer gura dozu?
- ANA Ene! Begitu! eskutitz bat dakar... (Artu eskutitza ta  
irakurten dau). Ene! Au bai gauza ederral! Ba dakizu,  
Joana, Printzipeak zer gura dauan?: gu guztiok bere  
jauregira joatea gaur gabeen... Andiki asko izango  
da an. Emen inguruko mutillik eta neskatillarik  
ederrenak! Guk bai izango dogu zoriona!
- JOANA (Ana-ren ondora joan da, eskutitza ikusteko) Bai orixe!...  
Gaur gabeen esango ete dau, ba, Printzipeak nogaz  
ezkonduko dan? Amak diño, laster agertuko dauala.
- ANA Geugaz ezkonduko dala esaten badau? Bai, orixe  
esango dau! Bestela, oba ixilik egoten bada... Joana,  
geure jantzirik ederrenak eroango doguz jaure-  
gira... Errauskiñe, garbitu ondo nire jantzi gorri  
luzea ta oiñetako gorriak...

JOANA

Nik neure jantzi urdiñ-urdiña eroango dot, eta ga-  
nera neure pitxi ederrak... Errauskiñe, zoaz arin,  
eta ekarri ona nire jantzia... Zu zeu ezingo zara  
etorri Printzipearen jauregira: jantzirik bere ez  
daukazu orretarako, ta, ganera, zu ez zara polita  
bere... Ana! Emon arin eskutitz ori amatxori.  
(Errauskiñe, beera-begira, erdi negarrez. Kanpora joan eta  
ekarten ditu jantziak. Ana ta Joana amaren billa doaz, ari-  
ñeketan).

5-GARREN AGERRALDIA:

ARRATSALDE ARETAN. LEENGO GELAN

(Ama ta Errauskiñe dagoz gelan).

- AMA Errauskiñe, garbi dagoz oiñetakoak?
- ERRAUSKIÑE Bai, ama, garbi dagoz.
- AMA Orduan, Joana-ri ta Ana-ri deitu bear deutset.  
(Deitzen deutse): Joana! Ana! Etorri zaitetze! Arin,  
baiña! Zalburdia atean dago. Ordua da Printzipea-  
ren jauregira joateko. (Ana ta Joana sartzen dira).
- JOANA Errauskiñe, ekarri arin nire oiñetakoak! (Errauski-  
ñe-k emoten deutsoz oiñetakoak Joana-ri. Joana jesarri egiten  
da, oiñetakoak jazteko). Ai! Ai! Oiñetakoak txikiagiak  
dira ta estu daukadaz... Baiña ze politik direan!  
Sartuko ditut, ba! (Jazten ditu, ta zutundu egiten da)  
Ai! Au da miña! Ezin dot pausorik bere emon!  
(Jesarri egiten da; gero, barriro zutundu).
- ANA (Arro-arro) Nik uste dot, Joana-ren jantzia baiño po-  
litagoa dala nire jantzi gorri luze au.
- JOANA Baiña nire oiñetakoak zureak baiño politagoak dira!
- ANA (Ateruntz doala) Au da jantziaren ederra! Bai, ba da-  
kit nik: Printzipeak neu maite izango nau. Bai, neu  
maite izango nau Printzipeak.
- JOANA Ni zu baiño gazteagoa naz eta politagoa. Neu maite  
izango nau Printzipeak...

AMA Orain, neskak, itxi asarreok, eta goazen arin-arin, zaldurdia atean dago-ta. (*Neskatilla biak kanpora doaz, arro-arro. Ama deadarrez*): Aita! Zertan zagoz, ba? Erdu arin, zalburdia itxaroten dago-ta. (*Ama bere ba doa. Aita sartzen da*).

AITA Errauskiñetxu, guk joan egin bear dogu... Zure amak diño zuk ez daukazula jantzi politik Printzipearen jauregira joateko; orregaitik, gaur emen gelditu bearko dozu... Ain alperra zara zu, izan bere! Zergaitik ez dozu egin jantzi barri polit bat gaurko jai onetarako? (*Aita bere ba doa, arin-arin*).

ERRAUSKIÑE Ez, nik ez daukat jantzi politik; orregaitik, ni ezin joan Printzipearen jauregira... Ai, ama! Nik ementxe egon bear, bakar-bakarrrik! (*Jesarri sutondoan eta negarrez asten da*).

#### 6-GARREN AGERRALDIA

#### LEENGO GELAN

(*Errauskiñe sutondoan jesarrita, negar baten. Maitagarri bat sartzen da, polit-polita*).

MAITAGARRI Zergaitik zagoz negarrez, Errauskiñetxu?

ERRAUSKIÑE Nik lan larregi egin bear izaten dot etxe onetan; nire aitzak ez dabe ezer egiten... Nik ez daukat jantzi politik bere; nire aitzak, ostera, jantzi polit asko daukeez... Nire aitzak ez dira onak niretzako. Ta, ganera, ni alper aundi bat nazala esaten deutso amak aitari, ta aitzak asarre egiten deust beti... Nik ezin euki jantzi politik, eun onik bere ez daukat-eta; baiña aitzak ez daki au. Berak uste dau, amak asko maite nauala; baiña, ez. Oso gaiztoa da ama niretzat, eta ez nau maite. Iñork bere ez nau ni maite, ta orrexegaitik nago beti negarrez (*Negar egiten dau*).

MAITAGARRI Ez, Errauskiñetxu; zu ez zara alperra, zu oso bear-giña zara ta on-ona: nik ondo dakit ori... Ara: ain ona zarealako, zeuri laguntzera etorri naz. Zer gura dozu, ba, Errauskiñetxu?

ERRAUSKIÑE (*Triste*) Ez dakit, ba!

MAITAGARRI Nik ba dakit zuk zer gura dozun: zuk Printzipearen jauregira joatea gura dozu, ezta?

ERRAUSKIÑE Bai... baiña ni ezin joan aren jauregira: nik ez daukat jantzi politik. Ganera, nik ez daukat zalburdirik bere...

MAITAGARRI Ta, zer?... Maitagarri batek berealaxe egiten dauz (*ditu*) jantzi politik eta zalburdia... Nik zeozer egin gura dot zure alde, ta, ori gura badozu, joango zara, bai, Printzipearen jauregira.

ERRAUSKIÑE Bai?... Ta zelan egingo dozu, ba, ori? Nun dozuz jantziak eta zalburdia?

MAITAGARRI Ara: neuk esaten deutsudan guztia egin bear dozu.

ERRAUSKIÑE Bai, bai pozik bere, Maitagarri on ori! Zeuk esaten deustazun guztia egingo dot nik...

MAITAGARRI Zoaz baratzerara, ta ekarri andik sagar gorri aundi bat... (*Errauskiñe baratzerara doa, ta berealaxe sagar gorri aundi bat dakar*).

ERRAUSKIÑE Emen dago sagar gorria.

MAITAGARRI Ederto. Itxi egizu sagar gorri ori ortxe ate-ostean. Gero, sartu barrura ta begitu egizu leiotik kanpora. (*Errauskiñe-k ixten dau sagarra ate-ostean. Gero sartu, joan leiora ta kanpora begirutzen dau*).

ERRAUSKIÑE Ene! Ene! Zelako zalburdi ederra, gorri-gorria ta urrezkoa dan-dana... Baiña, ta nun aurkituko dodaz zaldiak?

MAITAGARRI Ba daki zure katuak sagutxuak arrapatzen?

ERRAUSKIÑE Oba ez! Amaika sagu arrapatzen dau!... Oraintxe deituko deusatz. (*Kanpora urteten dau, katuari «mix-mix» deika. Gerotxuago or dator barrura, ta Maitagarriagana daroa katua*).

MAITAGARRI Mitxiña, arrapau egizuz sagutxu bi Errauskiñetxurentzat. (*Katua orma-zulo batera doa, ta berealaxe arrapatzen ditu sagu biak, eta Errauskiñe-ri daroatsoz*).



- MAITAGARRI **Ipiñi egizuz sagutxuok ate-ostean, zalburdi-aurrean.** (*Errauskiñe-k kanpora daroaz sagu biak. Gero, sartu barrura ta leiura doa.*)
- ERRAUSKIÑE **Ene! Ene! Maitagarri: zaldi zuri polit bi ikusten dodaz nik! Baiña, nor jesarriko da zalburdi-aurrean? Nik ez daukat morroirik...**
- MAITAGARRI **Eroan egizu katu au. Ipiñi berau zalburdian.** (*Errauskiñe-k ba daroa katua ta zalburdian ipinten dau. Gero, leen lez, sartu barrura ta leiotik begiratzen dau.*)
- ERRAUSKIÑE **Ene! Maitagarri! Gizon bat dago, orain, zaldi bien aurrean, ta zelako jantzi politak daukazan! Gorri-gorriak eta urrezkoak!**
- MAITAGARRI **Orrexek eroango zaitu zu Printzipearen jauregira, Errauskiñietxu.**
- ERRAUSKIÑE (*Bere soiñekoari begira, erdi negarrez*): **Baiña Printzipeak ez nau maite izango, onango jantzi zaarraz...**
- MAITAGARRI **Ez, ume, olango jantzi zaarraz ez; baiña maiteko zaitu, bai, zeure gelan aurkituko dozun jantzi polita ikusi ezkerro.** (*Ba doa Errauskiñe arin be arin bere gelara. Gerotxuago nun agertzen dan, jantzi zuri polit bat jantzita. Lora polit baten antza dauka Errauskiñe-k.*)
- ERRAUSKIÑE **Ai, Maitagarri! Au bai jantzi polita! Ta zelako oiñetako txiki ederrak! Urregorritzkoak!... Eskerrik asko, Maitagarri! Oso ona izan zara niretzat. Olan bai, olan joan naiteke orain Printzipearen jauregira. Oi! Eskerrik asko, eskerrik asko!**
- MAITAGARRI (*Errauskiñe-ri mosu egiñaz*): **Polita zagoz, ume; polita benetan. Oso zoriontsua izango zara Printzipearenean. Zu Printzesa bat zareala uste izango dau arek.**
- ERRAUSKIÑE **Ez, ni ez naz Printzesea, Maitagarri. Baiña, ori bai; neskatilla zoriontsu bat naz ni orain.** (*Errauskiñe ataruntz doa, arin-arin.*)
- MAITAGARRI **Zu Errauskiñe; itxaron apur bat...**
- ERRAUSKIÑE (*Barrero sartzen da*): **Zer gura dozu, Maitagarri?**
- MAITAGARRI **Entzun ondo: auxe da gogoan izan bear dozuna: erlojuak gabeko amabiak jo baiño leenago biurtu**

bear zara etxera. Bein amabiak jo ezkerro, zure gauza polit guztiak alde egingo deusue. Orduan ez dozu izango Printzesa baten antzik; betiko Errauskiñe-ren antza baiño ez dozu izango, zeure jantzi urdin zaar eta guzti. Ez aaztu, gero, nire berbok!

- ERRAUSKIÑE **Ez, Maitagarri; ez ditut aaztuko, gogoan izango dodaz. Erlojuak gabeko amabiak jo aurretik biurtuko naz etxera... Eskerrik asko, milla esker, bein eta barrero, zuri, Maitagarri!** (*Errauskiñe ba doa, arin. Maitagarria leiotik begira, irribarreka...*)

## PRINTZIPEAREN JAUREGIAN

### 7-GARREN AGERRALDIA:

(*Printzipea zutunik dago, leio-ondoan. Jaun eta andra batzuk bere inguruan. Printzipea leiotik begira.*)

- PRINTZIPEA **Ene! Begira! Printzesa eder bat dator ona. Lora baten antza dauka, lora zuri polit baten antza...** (*Jaun eta andrak leiotik kanpora begiratzen dabe. Gero Errauskiñe sartzen da atetik. Joana ta Ana ate-ondoan dagoz, zutunik. Ez dabe ezagutu euren aiztea danik Printzesa barri au.*)
- ANA **Oso liraiña da. Ze jantzi polita! Gurea baiño milla bidar politagoa da orren jantzi zuria.**
- JOANA **Ta pitxiak? Begira zelango pitxiak! Geuri bere amak pitxi geiago emon bearko deusku. Olakoxe pitxiak erosteko eskatuko deusagau...**
- PRINTZIPEA (*Errauskiñe-gana doa. Onen eskua artu ta mun egiten deuto*): **Printzesa eder ori! Ondo etorria gure artera! Ni poz-pozik nago, nire jauregira etorri zarealako... Erdu neugaz eta ikusi nire lagunak.** (*Errauskiñe-k jaun-andra eta neska-mutik guztiakaz berba egiten dau. Printzipea bere alboan dabil beti.*)
- JOANA **Printzipea poz-pozik dago.**

ANA

Aren baten, Printzesa barri orrexegaz ezkondu gura izango dau... Zertarako etorri ete da ori gaur gabea? Ori etorri aurretik, Printzipearentzat neu nintzan emengo neskatillarik ederrena... Nik ezin dot maite Printzesa barri ori. (Printzipearen otseñiak gauza gozo asko dakarrez, jan-edanerako).

JOANA

Zer diñozu? Printzipea zeugaz ezkonduko zala? Bai zera! Zu zaarregia zara. Ni zu baiño iru urte naz gazteago. Bai, Printzipeak asko maite nau ni. Uste dot neugaz ezkonduko dala: Printzesa au, bear bada, ez da emen luzaro egongo. Ara: ba doa, ba doa... (Erlojua orduak joten asi da: Bat! Bil...)

PRINTZIPEAK

Ez, ez zaitetz joan oindiño, Printzesa eder ori! Zeure izenik bere ez dozu esan... (Errauskiñe, ariñeketan ateruntz).

ERRAUSKIÑE

Bai, joan egin bear dot, joan egin bear dot!

PRINTZIPEA

(Aren atzetik, ariñeketan): Itxaron! Itxaron! Gauzatxu bat esan bear deusut: Zeu zara nik egundo ikusitako Printzesarik ederrena! Zeu zara... (Errauskiñe atetik kanpora doa, arin be arin. Urregorritzko oiñetako txiki bata galdu egiten dau. Printzipeak aurkitzen dau oiñetako txua. Bien bitartean, erlojuak, apurka-apurka, gabeko amabiak joten ditu).

PRINTZIPEA

(Kanpora doa, deika): Nun dago ori? Nun dago ori? Nik ezin dot ikusi... (Gero Printzipea gela barrura biurtzen da. Urregorritzko oiñetako txikia dakar eskuan. Otsein bati emoten deutso, esanez): Artu oiñetakotxu au, ta, datorren goizean, eroan egizu etxerik etxe, uriko etxe guztietara. Zera aurkitu bear dozu: gaur gabea emen egon dan Printzesa eder ori nor dan. Nik ez dakit orren izenik; baiña auxe da bere oiñetako bata: txiki-txikia da, izan bere! Ez dot uste beste neskatilla batek jantzi aal izango dauanik au. Bilatu egizu, ba; orrexegaz ezkondu gura dot.

8-GARREN AGERRALDIA:

ERRAUSKIÑE-REN ETXEAN. BIARAMONEAN

(Ana, Joana ta Errauskiñe leengo gelan dagoz irurak. Errauskiñe lapikokoa egosten; beste aizta biak, josten).

JOANA

Oi! A bai ba zan gauza polita, Errauskiñe! Zuk ez zenduan ikusi bart Printzesa eder a. Ez eban emon gura izan bere izenik, baiña lirain-liraiña zan.

ANA

Bai. Orrexegaz ezkondu gura dau Printzipeak.

JOANA

Zelan dakizu zuk ori? Berak esan eutsun, ala? Zuk uste dozu, Printzipe orren barri dan-dana dakizula...

ANA

Ta zuk uste dozu, Printzipea zeugaz ezkonduko dala, ezta?

JOANA

Ez, ez dot nik olakorik uste.

ANA

Bai, ba dozu.

JOANA

Ez, ez dot. (Asarretu egiten dira... Ama sartzen da. Amagaz batera otsein bat dator barrura).

AMA

(Otseñari): Aurrera. Zer gura dozu?

OTSEIN

Ni Printzipearen otseñia naz. Oiñetako txiki-txiki bat dakart emen. Printzipeak auxe agindu deust: uri onetako neskatilla guztiak jantzi bear dabela oiñetako au...

ANA

A, bai. Ba dakit: Printzipea Printzesa ederraren billa dabil...

JOANA

Ekarri neuri oiñetako txiki ori. Neuk jantzi baietz!

ANA

Neuri, neuri, emoidazu neuri!

JOANA


Ez, leenengo neuri. Au ni baiño gazteago da-ta!

AMA

(Artu oiñetakoa otseñiaren eskutik, eta Ana-ri emoten deutso): Jantzi zeuk, Ana, oiñetakotxu polit au. (Baiña Ana-k ezin dau jantzi oiñetakoa; izan bere, au txikiegia da).



- JOANA (Pozik): **Ikusi dozu? Zuk ezin dozu jantzi oiñetako txiki au. Emoidazu neuri. (Ana-k, asarre, bota egiten dau oiñetakoa). (Printzipearen otseñak Joana-ri emoten deutso).**
- JOANA **Oso txikia da, izan bere, oiñetako au; baiña nik jantziko dot, bai orixel! (Nekez, baiña jantzi dau oiñetakoa. Sutondorantz doala, jausi egiten da. Atara oiñetakoa ta jaurti egiten dau. Gero, negar baten asten da).**
- JOANA **Ai! Ai! Oiñetako au ezin dau iñork jantzi: txikiegia da au, edozein oiñerako.**
- ERRAUSKIÑE **Neuk baietz jantzi oiñetako ori.**
- AMA, JOANA, ANA } **Zuk? Ez! Ez! Zuk ezin dozu sartu zure oiñetan zapataxu ori; txikiegia da zure oiñerako.**
- OTSEIN **Printzipeak agindu dau, neskatilla guztiak jantzi bear dabela oiñetako au. (Errauskiñe-ri emoten deutso zapatea. Errauskiñe jesarten da. Berealaxe jazten dau oiñetakotxua).**
- ANA **Ene! Jantzi egin dozu, bai; baiña ezingo dozu orre-gaz pausurik egin... (Errauskiñe zutundu egiten da).**
- JOANA **Ez, ezetz ibilli... (Errauskiñe ibili dabil).**
- JOANA **Ene! Ta bai! Ibili dabil... (Errauskiñe-k, orduan, kolkoan gordeta daukan beste oiñetakotxua ataraten dau, ta au bere jantzi egiten dau).**
- ANA **Zer!**
- JOANA **Baiña, nun aurkitu dozu, ba, beste oiñetako ori?**
- OTSEIÑAK **Au poza! Zeu zara, bai, Printzesa ederra. Zeu zara Erregeak billatzen dauana. (Errauskiñe-ri mun emoten deutso eskuan... Maitagarria sartzen da ta Errauskiñe-ren aurrean gelditzen da, zutunik, irri-barreka... Errauskiñe atera doa. Printzipea sartzen da, poz-pozik).**
- PRINTZIPEA (Errauskiñe-ri eskuan mun emonaz): **Oi, neure Printzesa laztan ori! Ederra zifian zeure sorgin-jantziagaz, lora antzeko jantzi zuri aregaz... Baiña, ederragoa zara onetaraxe jantzita: neskatilla txiro (pobre) baten antzera... Ara: zeugaz ezkondu gura dot nik. Eta beti-betiko maite izango zaitut, neure Erregiña eder ori!**



## SALOMON ERREGE ONA

Lagunak:

SARA  
DEBORA  
ADISKIDE BAT (andrazkoa)  
SALOMON ERREGEA  
GIZON BAT ezpata bategaz  
GIZON BI  
BESTE GIZON BATZUK

LENENGO AGERRALDIA:

TXABOLA BI

(Sara bere txabolako atean dago).

ADISKIDE **Egun on! Zure umetxu barria ikusten etorri naz. Mutikoa ala neskatoa da?**

SARA **Mutikoa da. Poz-pozik nago, mutikoa dalako. Amar egun ditu. Orain lo dago. Sartu ta ikusi.** (*Adiskidea txabola-barrura doa*).

ADISKIDE (*Urtetean*) **Oso ederra da umetxua; ain guri ta lodia... Orain Debora ikusten noa: onek be umetxu barria izan dau. Gauza bat ikusi gura dot: bion artean zein dan umetxurik andiena ta lodiena.** (*Debora-ren txabolara doa. Debora-k bere txabolako atera urteten dau*).

DEBORA **Egun on, adiskide!**

ADISKIDE **Zeure umetxu barria ikustera nator. Sara-ren umetxua ikustera bere joan naz. Oso guria ta lodia da.**

DEBORA **Umetxua orain lo dago. Sartu ta ikusi.** (*Barrura sartzen dira*).

BIGARREN AGERRALDIA:

LEENGO LEKUAN. GAUZZ

DEBORA **Ta orain zer egingo dot nik? Zer egingo dot? Nire umetxu il egin da!... Orain Sara-k ba dauka umetxu bat, eta nik bapez. Ba dakit zer egin: artuko dot, bai, neure umetxu ildakoa, ta Sara-ren umetxuagaz truk egingo dot.**

(*Sara-ren txabolara sartzen da. Gero, umetxu bat besoetan dakarrela urteten dau. Bere txabolara sartzen da. Sara-ren txabolara daroa gero bere umetxu illa*).

IRUGARREN AGERRALDIA:

LEENGO LEKUAN. GOIZEAN

(*Sara negarrez dator Debora-ren txabolara*).

DEBORA **Egun on, Sara! Zergaitik zagoz negarrez?**

SARA **Umetxua il egin jat! Ain pozik nengoan ni, lotara joan giñanean! Gaur goizean, bere billa joan nazanean, ilda**

**aurkitu dot... Ilda dagoala, ez dauko berak nire umetxuaren antzik...** (*Negarrez barrira bere. Adiskidea sartzen da*).

ADISKIDE **Zergaitik dago Sara negarrez?**

DEBORA **Umetxua il egin jako-ta.**

ADISKIDE **Oi, Sara gaixoa! Ain pozik egoan atzo zure umetxua, nik ikusi nebanean!**

SARA **Bai, neuk bere ez dakit zelan il dan... Eta umetxu illak ez dauka nire umetxuaren antzik... Debora-ren semetxuak dauka nire semetxuaren antza.** (*Debora asaratu egiten da*).

ADISKIDE **Bai? Neu joango naz Debora-ren umetxua ikustera.** (*Sartzen da*).

SARA **Debora, ez asarretu! Ni oso triste nago; ez dakit zer diñodan bere...**

DEBORA **Sara gaixoa!... Baiña ez dozu esan bear, nire semetxuak zure semetxuaren antzik daukanik.** (*Adiskideak urteten dau txabolatik*).

ADISKIDE **Umetxu onek Sara-ren umetxuaren antza dauko. Nik uste dot Sara-ren semetxua dala.**

DEBORA **Ori esaten badozu, ni asarretu egingo naz. Guk adiskide onak izan bear dogu. Ez dogu bear emen asarrerik.**

SARA **Neuk bere ez dot gura asarrerik; baiña, nire ustez, zuk niri semetxua ostu egin deustazu.**

DEBORA **Zu andra gaiztoa zara! Zeure umetxu il egin jatzu-ta, orain neurea ostu gura dozu zuk... Zoaz emendik!**

ADISKIDE **Ba dakit nik zer egin: joango gara, bai, ta umetxu illa onaxe ekarriko dogu. Orduan, umetxu biak aurrean ikusirik, jakingo dogu zein dan umetxu illa: Sara-ren semea ala Debora-rena. Ume biak ikusi nebazan nik, biak bizirik egozala...**

DEBORA **Ez, ez; nik ez dot ikusi gura umetxu illa. Ez dozu ona ekarri bear.**

SARA **Zuk ez deustazu lagundu gura adiskide oni. Nire ustez, andra gaiztoa zara zu. Asarretu egin bear dot zugaz.**



- ADISKIDE Emen ez dogu asarrerik bear. Erregeagana eroango dogu gure auzi au.
- SARA Bai, ederto. Goazen Salomon Erregeana. Errege ona da Salomón. Berak esango deusku zein umetxu il dan... Ekarri zure semetxua, Debora.

LAUGARREN AGERRALDIA:

**SALOMON ERREGEAREN ETXE-AURREA**

(Ba datoz iru emakumeak Erregearen etxera. Morroi bat dago, zutunik, ate-aurrean).

- MORROI Zer gura dozue?
- SARA Erregea ikusi gura dogu.
- MORROI Erregeak ez dau iñor ikusi gura. Lo dago. Gaur ezin dozue Erregea ikusi.
- DEBORA Orduan, goazen etxera. Erregeak ez gaitu ikusi gura.
- ADISKIDE Ez, gaur ikusi bear dogu Erregea. Zoaz, mesedez, eta itandu ea artuko gaituan... Morroi alper bat zara zu!
- MORROI Ni ez naz alperra. Ondo dakit nik Erregea Errege andi bat dana. Ez deutse berak barbarik egingo emakumetxu batzuei. Ganera, zuen umetxu ori negarrez asiko da ta zarataka... Zoaze barriro zeuen etxera.
- DEBORA Bai, nire umetxu au negarrez ta zarataka asiko da, Erregea ikustean. Etxera joan bear dogu.
- ADISKIDE (Artu diru batzuk eta morroiaren eskuan ipinten ditu) Morroi ona izan zaitez. Zoaz eta itandu ea Erregeak ikusiko gaituan ala ez.
- MORROI Itxaron, ba, emen. Oraintxe joango naz eta itanduko dot. (Ba doa morroia).
- SARA Gizon gaiztoa da morroi ori: emakumetxu batzuk dirua emon bear berari, Erregea ikusiko badabe (Ba dator morroia).

- MORROI Bai, ikusiko dozue Erregea. Sartu, mesedez.

BOSTGARREN AGERRALDIA:

**SALOMON ERREGEAREN ETXE-BARRUAN**

(Iru emakumeak Erregearen aurrean dagoz, zutunik).

- ERREGE Zein da zuen auzia?
- SARA Errege jauna! Nik semetxu bat dot. Debora-k be semetxu bat dau... Baiña umetxu bata il egin da. Umetxu illak Debora-ren umetxuaren antza dauka; nire ustez Debora-k ostu egin eban nire semetxua, berea il zanean.
- DEBORA Errege jauna! Sara asarre dago, semetxua il jakolako. Nire semetxua ikustera etorri zan au; ta nire semetxua ikusi ebanean, beretzat artu gura izan eban, berea il egin jakolako.
- ADISKIDE Errege jauna! Nik umetxu biak ezagutzen ditut (dodaz). Nire ustez, ildakoa Debora-ren semetxua da. Nire ustez, Debora-k ostu egin eban Sara-ren umetxua, Sara lotan zala.
- ERREGE Deitu ezpatariari. Ta esan ezpatea ekarteko. (Gizon bat sartzen da. Ezpata andi bat dakar eskuan).
- MORROI Errege jauna! Emen dago ezpataria.
- ERREGE Orain, ekarri ona umetxu ori. (Morroi batek, artu Debora-ren umetxua, ta Erregearen aurrera daroa). Errege zuzena naz ni. Ez dakit umetxu au zeñen semea dan. Ez dakit Debora-ren semea dan, ala Sara-ren semea. Baiña nik zuzena izan bear dot biokaz. Ara, auxe egingo dot: artu, bai, umetxua, ta ebagi, zati bitan. Orduan, umetxu onen erdi bata Sara-rentzat izango da, ta beste erdia Debora-rentzat.
- DEBORA Bai, bai. Errege ona da gure Erregea. Ebagi umetxua zati bitan.
- SARA Baiña umetxua il egingo da!

ERREGE Bai, umetxua il egingo da. Baiña bakotxak umetxu onen erdi bana izango dozue. Olan ez dozue aurreantzean auzirik izango.


SARA Errege jauna! Gorde bizirik nire semetxu au! Ez zaitu umetxua! Emon Debora-ri umea! Bizi daitela umetxu au!

ERREGE Debora-ri ez; emon umetxua Sara-ri. Umetxuaren bizia gura dan Sara-k: olantxe igarri dot Sara dala umetxu onen ama. Debora andra gaiztoa da. Sara-ren semetxua ostu egin eban orrek. (Gizon bik kanpora daroe Debora).

ADISKIDE Errege zuzena da gure Erregea. Ona, bai, Salomon Erregea!

DANAK Ona, bai, Salomon, gure Erregea. Zuzena, Salomon Erregea. Bizi bedi luzaro gure Erregea!

A M A I A



## DRINGILIN DRON

*Antzezleriak:*

Arrantzale bat  
MINA, neskatilla bat  
Erregea  
Erregearen otsein bi  
GIZONTXUA  
Erregiñearen seintxua  
Erregiñearen neskame bat  
Atso zaar bat (Erregiñearen neskamea au bere)  
Erregiñearen beste otsein-neskame batzuk

1-GO AGERRALDIA:

### ARRANTZALEAREN TXABOLA AURREAN

(Arrantzale zaar bat, sareak konpontzen. Minak urteten dau txabolatik eta jesarri egiten da).

ARRANTZALE Nun egon zara, Mina?



- MINA Etxean egon naz, aita, egun osoan.
- ARRANTZALE Eta, zer egin dozu, ba, etxean?
- MINA Zer? Jantzi barri au egin dot gaur, aita.
- ARRANTZALE Bai, gero? Zeuk egin dozu jantzi barri ori? Ta ez deutsu iñork lagundu?
- MINA Ez, aita, neuk egin dot jantzi au. Emen ez dago iñor niri laguntzeko... Orain neuk egiten dodaz nire jantzi guztiak.
- ARRANTZALE Gaztea zara, ba, zu oraindiño, jantziak-eta egiteko... Ara: zure ama il zanean, auxe esan eustan: zuk gauza asko egingo zenduzala. Ta, bai, alantxe da: egin bere egiten dozuz. Zuk ba dakizu lapikokoa egosten, ogia egiten, etxea garbitzen; eta, orain, zeure jantziak bere zeuk egiten dozuz; ta, jantzi politak, gero! Nik uste dot, nire arrain-sareagaz bere, urregorritzko jantzia egingo zeunkeala zuk! Bai, orixe egiten bere jakin baietz zuk! Ja, ja, ja! Neure alabatxu ori!
- MINA Ez, aita; nik ezin dot egin urrezko jantzirik zure arrain-sareagaz.
- ARRANTZALE (Zutundu egiten da. Gero, neskatillari, besarkatuz, mosu egiten deutso): Bai, baietz jakin! Baietz jakin! Ba dakit nik orixe bere egingo zeunkeana. (Erregea sartzen da. Otsein bi datoz beragaz).
- ERREGE Egun on, arrantzale! Zeure alabea dozu neskatilla eder au?
- ARRANTZALE Bai, Errege jauna; neure alabea dot neskatilla eder au... Ederra da, bai; ta, ganera, gauza asko dakiz onek egiten: gazte-gaztea izan arren, ba daki lapikokoa egosten, ogia egiten, etxea garbitzen, eta jantzi politak egiten bere bai! Urrezko jantzi bat bere egingo leuke onek arrain-sare bategaz...
- MINA Ez, Errege jauna; nik ezin dot egin urrezko jantzirik arrain-sare bategaz... Nire aita zaar-zaarra da, bai, ta zer diñoan bere ez daki. (Mina txabola barrura doa, negar baten).

- ERREGE (Otseñei): Ekarri neskatilla ori neure jauregira... Urrezko jantzi bat egin bear dau arrain-sare bategaz, edo, bestela, il egingo dot.
- ARRANTZALE (Negarrez): Errege jauna, ez egin olakorik! Ez il nire alabatxu au! Bai, gauza asko dakiz onek egiten; baiña ezin dau, ez, urrezko jantzirik egin arrain-sare bategaz... Ez egizu eroan emendik! Begira: ni oso zaarra naz, Errege jauna; nire emaztea antxiña il zan... Mina kanpora badoa, nork egosiko dau nire lapikokoa? Alabatxu orixe da niretzat dan-dana. Nik asko maite dot. Ez egizu, arren, eroan emendik!
- ERREGE Zeuk esan dozu, urrezko jantzia egiten bere ba dakiala neskatilla onek arrain-sare bategaz. Berorren aita zara, ta ondo ezagutzen dozu: orduan, ba dakit nik ori egiten bere jakingo dauala... Ain zuzen bere, olakoxe jantzi bat gura dot nik. (Erregea ba doa, bidean aurrera. Otsein biak, oratu besoe-tatik neskatillari, ta ba daroe. Aita txabolara sartzen da, negar ta negar).

## 2-GARREN AGERRALDIA:

### ERREGE-JAUREGIKO GELATXU BATEN

(Mina jesarrita dago, leio-aurrean. Negar-zotinka dago. Arrain-sare bat dauka eskuetan. Beste arrain-sare bat, otzara baten, bere oiñetan. Gelearen alboko atea itxita dago).

- MINA Zer egingo dot nik? Zer egingo dot? Erregeak diño, jantzi bat egin bear dodala nik. Urrezko jantzi bat egin bear dot erregearentzat arrain-sare onegaz. Baiña nik ezin dot ori egin! Eta, egiten ezpadot, gaur gabean il egingo nau Erregeak. Ai ene! Zer egingo dot nik?... Ama! Amatxu laztana! salbau nagizu! salbau nagizu!... (Makurtu burua, ta negarrez asten da... Gerotxuago, Gizontxu txiki-txiki bat sartzen da gelan: sudurra luzea dau; soiñekoak, zaarrak...)
- GIZONTXUA Egun on, neskatilla on ori! Zergaitik zagoz, ba, negarrez?

MINA Erregeak agindu dau, urrezko jantzi bat egin bear dodala nik arrain-sare onegaz; ta nik ezin dot ori egin. Nik ez dakit ori zelan egiten dan.

GIZONTXU Zer emongo deustazu, ori neuk egiten badot zure ordez?

MINA Zer? Ona emen pitxi batzuk. Auxe da nik daukadan guztia. Neure amarenak zirean pitxiok... Ai, nik uste izan dot amatxok salbauko nauala, baiña... (Gizontxuak artzen ditu pitxiak. Gero, arrain-sarea artzen dau eskuetan).

GIZONTXU (Bertsotan):

«Arrain-saretxu, arrain-sare: biurtu zaitez, biurtu urre!... Jauregi eder bat erosteko, pitxiok ditut nik salduko...»

(Gizontxuak otzaran izten dau arrain-sarea. Gero, urre gorritzko jantzi eder bat ataraten dau otzaratik. Minari emoten deutso).

MINA Ene! Au da jantziaren ederra! Eskerrik asko, eskerrrik asko zuri, lagun on orri... Oi! Orain, etxera joateko esango deust Erregeak. Au poza! (Gizontxuak alde egiten dau).

3-GARREN AGERRALDIA:

### LEENGO GELEA BERA. BIARAMONEAN

(Mina leio-aurrean dago, kanpora begira. Erregearen otsein bat sartzen da. Otzara bat dakar eskuetan. Mina-k begiratzen deutso).

MINA Zer? Pozik artu dau Erregeak urrezko jantzia?

OTSEIN Bai orixe! Poz pozik artu dau Erregeak urre gorritzko jantzia. Ta, orain, beste olakoxe jantzi bat gura dau.

MINA Zer? Beste jantzi bat? Ai, nik ezin dot egin beste jantzirik. Erregeak larregi eskatzen dau.

OTSEIN Erregeak agintzen dauana egin bear dozu zuk. Eta Erregeak beste urrezko jantzi bat gura dau... Egin bere, gaur bertan egin bear dozu; bestela, ba dakizu: il egingo zaitu! (Otseiñak arrain-sare bat emoten deutso, otzara baten. Mina jesarri egiten da. Negarrari emoten deutso. Otseiña kanpora doa).

MINA Ai ene! Ai ene! Zer egingo dot nik?... Gizontxu! Lagunduko deustazu barriro? (Gizontxua sartzen da).

GIZONTXU Egun on, neskatilla on ori! Zergaitik zagoz negarez? Atsegin izan jako Erregeari urrezko jantzia?

MINA Bai, bai. Atsegin izan jako Erregeari urre gorritzko jantzia. Orregaitik, beste alakoxe jantzi bat gura dau orain. Baiña nik ezin dot egin jantzirik!

GIZONTXU Zer emongo deustazu, ori neuk egiten badot zure ordez?

MINA Zer emon? Ereztun auxe baiña ez daukat nik. Neure amatxorena zan au bere. Ez, nik ez deustut au emon gura. Larregi maite dot amatxoren ereztun au.

GIZONTXU Ez? Zer, ba? Ez dozu gura urrezko jantzia, ala?

MINA Bai, bai... Emen dozu ereztuna. (Mina-k emoten deutso ereztuna).

GIZONTXU (Bertsotan):

«Arrain-saretxu, arrain-sare: biurtu zaitez, biurtu urre!... Jantzi ederrak egiteko, ereztun auxe nik salduko...»

(Gizontxuak otzaran sartzen dau arrain-sarea. Gero, urre gorritz egindako jantzi polit bat ataraten dau. Mina-ri emoten deutso).

MINA Eskerrik asko, eskerrrik asko zuri, laguntxu maitagarri orri. Barriro salbau nozu. Milla esker! (Gizontxuak alde egiten dau).



## LEENGO GELEA BERA. BIARAMONEAN

(Mina leio-aurrean dago, kanpora begira. Erregearen Otseina sartzen da. Otzara bat dakar eskuetan. Mina-k begiratzen deuto).

- MINA Zer? Joan naiteke orain neure etxera?
- OTSEIN Etxera! Erregeari poz aundia emon deuto zure jantzi barriak. Oso ederra da, izan bere. Orain, beste olakoxe jantzi bat dau gura Erregeak.
- MINA Ai ene! Erregeak larregi eskatzen dau. Nik ezin dot egin beste jantzirik. Ez, ezin dot egin!
- OTSEIN Ara: beste urrezko jantzi bat egiten badozu, Erregeña egingo zaitu! Erregeak zeugaz ezkondu gura dau...
- MINA Bai, gero? Erregeña izango naz? O! O! Pozik bere izango nintzake ni Erregeña!... Baiña, zer egingo dot? (Otseniak otzarea emon eta urten egiten dau).
- MINA Orain, Gizontxuari emoteko bere, ez daukat nik beste ezer... Zer egingo dot? (Gizontxua sartzen da).
- GIZONTXUA Egun on, neskatilla on ori! Zer? Gura dozu, barriro bere, nire laguntzarik?
- MINA Ai, adiskide; gura dot, bai, barriro bere, zure laguntza eder ori. Begira: beste urrezko jantzi bat egin bear dot Erregearentzat. Gero, Erregeña egingo nau Erregeak... Baiña nik ezin dot egin urrezko jantzi ori.
- GIZONTXU Zuk ez; baiña zer emongo deustazu, neuk egiten badot ori zure orde?
- MINA Ez daukat beste ezer, zuri emoteko. Eroan dozuz nire pitxiak eta ereztuna, ta orain ez daukat beste ezer... Ai ene! Il egin bear dot! (Leiotik kanpora begiratzen dau).
- GIZONTXUA Ara: Erregeña izango zareanean, sein (ume) bat izango dozu... Esaidazu, ba, seintxu ori neuri emon-

go deustazula. Ori agintzen badeustazu, orduan neuk egingo dot jantzia, barriro bere, zure orde.

MINA

Neure seintxua emon? Ez orixe? Nik ez dot emon- go neure umerik... Baiña emen ez dago beste biderik... Ta, nork daki?... Bear bada, ez dot izan- go umerik... Bai, aginduten deustut: zeuretzat izango da nire umetxua.

GIZONTXUA

Ederto. (Bertsotan):

«Arrain-saretxu, arrain-sare:  
biurtu zaitex, biurtu urre.  
Jantzi eder baten truke,  
ni seintxu eder baten jabel!»

(Gizontxuak sartzen dau otzaran sarea. Gero, urre gorrizko jantzi eder bat ataraten dau otzaratik. Mina-ri emoten deuto jantzi ori. Mina ixilik gelditzen da. Gizontxuak alde egiten dau).

## URRENGO URTEAN. JAUREGIKO GELA BATEAN

(Mina orain Erregeña eginda dago. Jantzi gorri polit bat dauka soñean eta oiñetako gorriak ditu. Seaskatxu baten ondoan dago jesarrita. Seintxu bat dago seaskan. Mina seintxuari berbetan).

MINA

(Kantuz)

«Bonbolontena, ene laztana,  
ez egin lorik basoan;  
azeritxuak eroango zaitu,  
erbia zaralakoan...»

Neure umetxu ori! Zenbat maite zaitudan, laztan ori! Orain, neskatotxu polit bat zara, ta, egunen batean, andra eder bat izango zara... Orain, Printzesa txiki bat baiño ez zara; baiña, egunen batean, zer izango zara zu? Erregeña!!!... Ta mire aita arrantzale bat baiño ez zan. Gure amak ikusiko baleu! Baiña a ilda dago. (Barriro asten da seintxuari kantaten, eta Gizontxua sartzen da).

- GIZONTXUA Egun on, Erregiña! Emen nator ni, zure seintxuaren billa. Neurea izango zala agindu zenduan zuk, ezta?
- MINA Ai ene! Ez, ez! Nik ezin dot egin olakorik! Nik zelan emon alabatxu au? Ez, larregi maite dot, ifiori emoteko...
- GIZONTXUA Ezetz? Zer da ori? Neurea izango zala, agindu zenduan zuk. Ez aaztu, gero! Iru jantzi eder egin nebazan nik zuretzat, irurak urre gorritzakoak... Zeure seintxu ori emon gura ezpadeustazu, neuk esango deusatz egi guztia Erregeari; ta, orduan, Erregeak il egingo zaitu...
- MINA Bai, alantxe da: agindu neutsun, bai, zeurea izango zala nire seintxua... Baiña nik larregi maite dot alabatxu au. Ez, zinen deusatz nik ifiori emon neure alaba bakar au... Ara: neure aberastasan guztiak emongo deusatz, baiña umerik ez. Erregeak aberastasan aundiak emon deustaz: orreixek guztiok emongo deusatz...
- GIZONTXUA Ez, nik ez dot gura zure aberastasanik. Nik zure seintxu ori gura dot: neuretzat izango zala esan zenduan zuk, eta orixe da nik gura dodana. (*Mina negarrez asten da*).
- GIZONTXUA Ikusten dot, bai, asko be asko maite dozula zeure alabatxua. Begira: iru eguneko epea emoten deusatz, beste bide bat billatzeko... Zuk ez dakizu ora-indiño nire izena zein dan. Ba, nire izena zein dan igarri bear dozu; neure izena esan bear dozu. Ni egunero etorriko naz zugana, ta egun bakotxean zazpi izen esango dozuz. Eta, nire izena zein dan jakiten badozu, orduan ez dot eroango zure alabatxua... Agur, ba, ta biar arte! (*Gizontxuak alde egiten dau. Erregiñeak txilin bat jotzen dau. Berealaxe sartzen da otsein bat*).
- MINA Gizontxuaren izena igarri bear dot... Deitu, medez, beste iru otseiñi, ta zoaze erririk erri. Zeuen zaldi bizkorrak artu, ta ibili bide guztietatik. Uri guztietara joan bear dozue; ta bizkor joan bere, gero! Erreiñu onetako gizon guztien izenak jakin

bear dodaz... Arin, baiña, arin! Iru egun baiño ez dodaz nik, Gizontxuaren izena jakiteko-ta! Ez egon geldi! Zoaz arin! (*Otseiña ba doa. Erregiñea seintxuari begi-begira. Gero, artu besoetan eta laztandu egiten dau, bein eta barriro*).

6-GARREN AGERRALDIA:

BIARAMONEAN; ATZOKO GELAN

(*Erregiñea jesarrita, sutondoan. Besoetan dauka alabatxua. Gizontxua sartzen da*).

- GIZONTXUA Egun on, Erregiña! Emen nator, ba... Ba dakizu nire izena?
- MINA Enrike ete da zure izena?
- GIZONTXUA Ez, ez da ori nire izena.
- MINA Tomas ete da, ba?
- GIZONTXUA Ez, ba, ori bere ez da nire izena.
- MINA Jon ete da?
- GIZONTXUA Bai zera!
- MINA Peru ete da?
- GIZONTXUA Ez, Peru bere ez.
- MINA Praisku ete da, ba?
- GIZONTXUA Ezta.
- MINA Manu?
- GIZONTXUA Ez.
- MINA Orduan, Karlos izango da...
- GIZONTXUA Ezta... Esan dozuz zazpi izenak. Gaurkoz, naikoa da... Beste egun bi dozuz. Gero, zure alabatxua neurea izango da ta neure etxera eroango dot.



(Gizontxua kanpora doa. Erregiñeak seaskan izten dau seiña. Gero leiora doa. Ipiñi burua beso ganean, eta negarrari emoten deutso. Gerotxuago txilin bat joten dau. Otsein bat sartzen da).

- MINA Ez itandu beste gizon-izenik. Nik uste dot, sor-gin-izen bat dauala arpegi motzeko Gizontxu orrek. Lagundu niri, mesedez, danon artean, zazpi sor-gin-izen gogoratzen.
- OTSEIN Bai, bai; lagunduko deutsugu, Mina Erregiña. (O-tseiñak alde egiten dau).

#### 7-GARREN AGERRALDIA

#### BIARAMONEAN; LEENGO GELAN

(Mina Erregiña sutondoan dago, jesarrita. Umea besoetan dauka. Gi-zontxua sartzen da).

- GIZONTXUA Egun on, Erregiña! Ba dakizu gaur nire izena?
- MINA «Bizar-luze» ete da?
- GIZONTXUA Ez, ez da ori nire izena.
- MINA «Sudur-aundi» ete da?
- GIZONTXUA Ez.
- MINA «Arpegi-motz»?
- GIZONTXUA Ezta.
- MINA Orduan, «Azeri-begi»?
- GIZONTXUA Bai zera!
- MINA «Paita-anka» ete da, ba?
- GIZONTXUA Ori bere ez.
- MINA (Geroago ta larriago) «Buru-aundi» ete da?
- GIZONTXUA Ez... Gaurkoz, beste izen bat. Orixe izango da azkenengoa.

MINA Zera ete da, ba? «Txarri-belarri»?

GIZONTXUA Ezta... Esan dozuz, gaur bere, zazpi izenak. Naikoa da, gaurko. Biar etorriko naz, azkenengoz. Ta, ba dakizu: biar ez badakizu nire izena zein dan, neure etxera eroango dot zure alabatxua. Agur, ba, eta biar arte! (Gizontxua kanpora doa. Erregiñeak seaskan izten dau umea; ipiñi burua beso ganean, ta negar baten asten da. Gero, txiliña joten dau. Otsein bat sartzen da be-realaxe).

OTSEIN Emen nago, Mina Erregiña. Zer egin bear dot zure alde? (Erregiña, gora begira. Ara ta ona dabil gelan, arin-arin. Larri dago. Gero, seintxuaren seaskara doa. Artu alabatxua besoetan eta laztandu egiten dau).

#### 8-GARREN AGERRALDIA:

#### BIARAMON GOIZEAN: ATZOKO GELAN

(Erregiña ara ta ona dabil, gelan arin-arin. Besoetan dauka seintxua. Laztandu egiten dau, bein eta barriro. Ibili dabil, beste apur baten. Gero, txiliña joten dau, ta Atso Zaar bat sartzen da, neskamea).

- MINA Biurtu dira otseiñak?
- ATSO ZAAR Bat ezik, beste dan-danak, Erregiña.
- MINA Ba, nigana ez da iñor etorri... Zergaitik ez dira nigana etorri?
- ATSO ZAAR (Negarrez) Ez dauke ezer zuri esateko. Ez dabe iñun aurkitu Gizontxuaren etxerik...
- MINA (Seintxua laztanduz): Ene alaba laztana! Eldu da az-ken ordua! Nork salbauko zaitu zu orain? (Laztan-du egiten dau). Baiña, Gizontxuak ez zaitu, ez, emen-dik eroango. Neuk salbauko zaitut zu! Bai. Egi osoa esango deusat Erregeari; berak il egingo nau ni; baiña, Gizontxuak ez zaitu eroango bere etxera, polit oril! (Erregiñeak seaskan izten dau seiña. Atera doa... Otsein bat sartzen da, ariñeketan. Berotuta dator, izerditan. Autsez beterik dagoz bere soiñekoak. Oñetakoak bere, autsez beterik... Bizkor berba egiten dau, arnasa estuka...)

OTSEIN Erregiña: ikusi dot Gizontxua... Txabola baten aurrean... An ibili da... su-ganean lapikokoa egosten... Gero, sua amatu, ta jan dau lapikokoa... Orain, onuntz dator... Bera baiño leenago eltzeko, ariñeketa baten etorri naz...

MINA Ta, zer esan dau? Esan dau bere izenik? Arin! Esan niri dakizun guztia!

OTSEIN Saltoka baten ibili da su-aurrean. Eta auxe abesten izan dau: (Kantuz):

«Sua, sua: egosi nire lapikoa!  
Gaur gabeen dator ona neskatoa!  
Ja, ja, ja! Ni bai Gizontxua!  
Gaur gabeen ekarriko dot umetxua!

Arrantzale baten alabea  
egin neban nik Erregiñ;  
baiña danak bardin, danak bardiñ:  
orrek bere ezin esan, ezin jakiñ  
DRINGILIN DRON nazala ni!! Ja, ja, ja!!»

MINA DRINGILIN DRON! DRINGILIN DRON! Zela-ko izena! Baiña orain ba dakit. Bai, ba dakit. Au poza! Orain ezingo dau eroan nire alabatxua. (Artu besoetan umea, ta laztandu egiten dau, bein eta barriro, pozez beterik. Zarata bat entzuten da... Orduan, Otseiña ta Atso Zaarra kanpora doaz. Gizontxua sartzen da. Poz-pozik dagoala dirudi: eskuei igurdika dago).

GIZONTXUA Egun on, Erregiña! Ta, zer? Ba ete dakizu orain nire izena? Ez aaztu, gero, auxe dala azkenengo eguna. Gaur nire izena esaten expadozu, neugaz eroango dot zure alabatxua.

MINA «Zaldi-buztan» ete da zure izena?

GIZONTXUA Ez, ez da ori nire izena.

MINA «Baba-lapiko» ete da, ba?

GIZONTXUA Ez. Ja, ja! (Pozik). Bi esan dozuz. Orain beste bost bakarrik...

MINA «Asto-belarri», orduan?

GIZONTXUA Ez, ez da ori bere. (Geroago ta pozago) ja, ja, ja!

MINA Zera izango da, bear bada... DRINGILIN DRON...

GIZONTXUA (Oso triste) Baiña, nork esan deutsu ori? Sorgiñen batek esan deutsu ori zuri. Bai, sorgiñen batek esan deutsu ori zuri...

OTSEIÑAK ETA (Kanpotik, barrezka): Ja, ja, ja, ja!!

ATSO  
ZAARRAK

MINA Egun on, DRINGILIN DRON! Egun on... eta agur betiko! Zoaz arin-arin; bestela, geuk botako zaitugu... (Alabatxuari) Laztan oril! (Gizontxuari): Agur, DRINGILIN DRON... eta eskerrik asko, ainbeste lagundu deustazulako!!

MINA, ATSO  
ZAARRA TA  
BESTE OTSEIN  
GUZTIAK

(Pozez beterik, kantuz):

«DRINGILIN DRON, egun on! (bis)  
umetxu polita geurea da-ta,  
alde emendik, t'or konpon!!»

A M A I A



# IZTEGITXUA

(Irakurgai oneitan agertzen direan barbarik gatxenetariakoak)

<b>Aberastasun</b> . . .	riqueza	<b>Jabe</b> . . . . .	dueño
<b>abestu</b> . . . . .	cantar	<b>jauregi</b> . . . . .	palacio
<b>ain zuzen bere</b> . . .	precisamente	<b>Laguntza</b> . . . .	ayuda
<b>alargun</b> . . . . .	viudo, a	<b>laztandu</b> . . . . .	acariciar, abra-
<b>alde egin</b> . . . . .	marcharse		zar
<b>andiki</b> . . . . .	magnate, noble	<b>lirain</b> . . . . .	esbelto
<b>antxiña</b> . . . . .	hace mucho	<b>luzaro</b> . . . . .	por mucho
	tiempo		tiempo
<b>ariñeketan</b> . . . .	corriendo	<b>Maitagarri</b> . . . .	hada, amable
<b>arnasa</b> . . . . .	respiración	<b>makurtu</b> . . . . .	inclinarse
<b>asarre</b> . . . . .	enfado, enfada-	<b>Oratu</b> . . . . .	agarrar
	do	<b>otsein</b> . . . . .	morroi, criado
<b>atsegin (izan)</b> . . .	placer, gustar	<b>otzara</b> . . . . .	cesta
<b>aurrerantzean</b> . . .	en adelante	<b>Pitxi</b> . . . . .	joya
<b>auzi</b> . . . . .	pleito	<b>Sare</b> . . . . .	red
<b>bakar</b> . . . . .	único	<b>seaska</b> . . . . .	cuna
<b>baratz</b> . . . . .	huerta	<b>sein</b> . . . . .	niño de pecho
<b>berealaxe</b> . . . . .	en seguida	<b>Truk(e)</b> . . . . .	cambio
<b>besarkatu</b> . . . . .	abrazar	<b>txilin</b> . . . . .	campanilla
<b>biaramon</b> . . . . .	el día siguiente	<b>Urdin</b> . . . . .	azul
<b>bidar</b> . . . . .	vez	<b>uri</b> . . . . .	población, ciu-
<b>biurtu</b> . . . . .	volver		dad
<b>epe</b> . . . . .	plazo	<b>urre (gorri)</b> . . . .	oro
<b>ereztun</b> . . . . .	anillo	<b>Zalburdi</b> . . . . .	carroza
<b>eskutitz</b> . . . . .	carta	<b>zarata</b> . . . . .	ruido
<b>eun</b> . . . . .	tela, cien	<b>zeregin</b> . . . . .	quehacer, ocu-
<b>gela</b> . . . . .	habitación		pación
<b>gertau</b> . . . . .	preparar	<b>zoriontsu</b> . . . . .	feliz
<b>gogoratu</b> . . . . .	recordar		
<b>igarri</b> . . . . .	acertar		
<b>igurdika</b> . . . . .	frotando		
<b>irribarre</b> . . . . .	sonrisa		
<b>itandu</b> . . . . .	preguntar		
<b>izerdi</b> . . . . .	sudor		